META NET

White Paper Series Liburu Zurien Bilduma

THE BASQUE LANGUAGE IN THE DIGITAL AGE

EUSKARA ARO DIGITALEAN

Inmaculada Hernáez
Eva Navas
Igor Odriozola
Kepa Sarasola
Arantza Diaz de Ilarraza
Igor Leturia
Araceli Diaz de Lezana
Beñat Oihartzabal
Jasone Salaberria

Springer

White Paper Series Liburu Zurien Bilduma

THE BASQUE LANGUAGE IN THE DIGITAL AGE

EUSKARA ARO DIGITALEAN

Inmaculada Hernáez [1]
Eva Navas [1]
Igor Odriozola [1]
Kepa Sarasola [1]
Arantza Diaz de Ilarraza [1]
Igor Leturia [2]
Araceli Diaz de Lezana [3]
Beñat Oihartzabal [4]
Jasone Salaberria [4]

[1] Univ. del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
[2] Elhuyar Foundation
[3] Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritza
[4] UMR 5478 IKER

Georg Rehm, Hans Uszkoreit
(editoreak, editors)

HITZAURREA

Liburu zuri hau hizkuntza-teknologiei eta haien potentzialei buruzko jakintza sustatzea helburu duen bildumaren atal bat da, hezitzaileei, kazetariei, politikariei eta hizkuntza-komunitateei zuzendua.

Europan, desberdina da, hizkuntza batetik bestera, hizkuntza-teknologien eskuragarritasuna eta erabilera. Horren ondorioz, desberdinak behar dute izan, halaber, hizkuntza bakoitzerako hizkuntza-teknologien ikerketa eta garapena bultzatzeko behar diren ekimenak.

Europako Batzordeak sortutako META-NET Bikaintasun Sareak gaur egungo hizkuntza-baliabideei eta -teknologiei buruzko analisi bat bideratu du liburu zurien bilduma honetan (p. 75). Analisi hori Europako 23 hizkuntza ofizialentzako eta Europako beste zenbait nazio– eta eskualde-hizkuntza garrantzitsurentzako gauzatu da. Analisiaren ondorio gisa, ondorioztatu da ikerketa-hutsune esanguratsuak daudela hizkuntza bakoitzerako. Adituen gaur egungo egoeraren analisi eta ebaluazio xeheago batez, etorkizuneko ikerketen eragina handiagotu eta arriskuak gutxiagotu litezke.

Enpresa-munduko, administrazio publikoko, industria-sektoreko, ikerketa-alorreko, software-enpresetako, teknologia-hornitzaileetako eta unibertsitate europarretako parte-hartzaileekin lanean diharduten 33 herrialdetako 54 ikerketa-zentroz (p. 71) osatuta dago META-NET. Denak elkarrekin, teknologiari buruzko ikuspegi bateratu bat ari dira sortzen, eta, aldi berean, 2020 bitartean ikerketa-hutsuneak hizkuntza-teknologien bidez betetzeko bideak zein izan daitezkeen azaltzen duen ikerketa-agenda estrategiko bat ere ari da garatzen.

PREFACE

This white paper is part of a series that promotes knowledge about language technology and its potential. It addresses educators, journalists, politicians, language communities and others.

The availability and use of language technology in Europe varies between languages. Consequently, the actions that are required to further support research and development of language technologies also differ for each language. The required actions depend on many factors, such as the complexity of a given language and the size of its community.

META-NET, a Network of Excellence funded by the European Commission, has conducted an analysis of current language resources and technologies in this white paper series (p. 75). This analysis focussed on the 23 official European languages as well as other important national and regional languages in Europe. The results of this analysis suggest that there are many significant research gaps for each language. A more detailed expert analysis and assessment of the current situation will help maximise the impact of additional research and minimise any risks.

META-NET consists of 54 research centres from 33 countries (p. 71) that are working with stakeholders from commercial businesses, government agencies, industry, research organisations, software companies, technology providers and European universities. Together, they are creating a common technology vision while developing a strategic research agenda that shows how language technology applications can address any research gaps by 2020.

Dokumentu honen egileek beren eskerrik beroenak adierazi nahi dizkie alemanezko liburu zuriaren [1] egileei, haien dokumentuko zenbait atal, hizkuntzaren araberakoak ez direnak, berrerabiltzeko baimena emateagatik.

Liburu zuri hau Europako Batzordeko Zazpigarren Esparru Programaren eta IKTak Sustatzeko Programa Estrategikoaren diru-laguntzari esker garatu da, T4ME (249 119 Dirulaguntza Hitzarmena), CESAR (271 022 Dirulaguntza Hitzarmena), METANET4U (270 893 Dirulaguntza Hitzarmena) eta META-NORD (270 899 Dirulaguntza Hitzarmena) kontratuen baitan.

The authors of this document are grateful to the authors of the White Paper on German [1] for permission to re-use selected language-independent materials from their document.

The development of this white paper has been funded by the Seventh Framework Programme and the ICT Policy Support Programme of the European Commission under the contracts T4ME (Grant Agreement 249 119), CESAR (Grant Agreement 271 022), METANET4U (Grant Agreement 270 893) and META-NORD (Grant Agreement 270 899).

AURKIBIDEA CONTENTS

EUSKARA ARO DIGITALEAN

THE BASQUE LANGUAGE IN THE DIGITAL AGE

1

LABURPENA

Hizkuntza gizakien arteko komunikazio-biderik garrantzitsuena da. Ideiak eta sentimenduak adierazteko aukera ematen digu, ikasten eta irakasten laguntzen digu, ezinbestekoa da bizitzeko, kulturaren transmisiorako tresnarik garrantzitsuena da, eta haren hiztunen identitate-ikurra da.

> Hizkuntza gizakien arteko komunikazio-biderik garrantzitsuena da.

Gaur egun, mundu globalizatu honetan, edozein lekutako pertsonekin erraz komunikatzeko tresna asko ditugu. Adibidez, informazio- eta komunikazio-teknologia berriek sare sozialak garatzeko aukera eman dute, eta, hala, ekarpen handia izan da herrialde eta kultura desberdinetako pertsonak harremanetan jartzea sustatzeko. Azken urteotan, halaber, atzerritarren mugimendua handia izan da gure herrialdeetan, dela turismoagatik, dela immigrazioagatik, eta horrek hainbat hizkuntzatan komunikatzeko beharra sortu du. Halere, hizkuntzarteko komunikazio-arazoak, maiz, lingua franca erabiliz gainditzen dira.

Europa aniztasun kultural eta linguistikoaren adibide garbia da, nahiz eta azken 60 urteetan zehar bateratzen politiko eta ekonomikoa izan duen. Hortaz, euskaratik polonierara zein italieratik islandierara, eragozpen linguistikoak gainditu behar dira, nahitaez, Europako hiritarren arteko eguneroko komunikazioan nahiz enpresaren eta politikaren esferetako komunikazioetan. Europar Batasunaren erakundeek bilioi bat euro behar dute urtean, beren eleaniztasun-politika betearazteko; alegia, testuak itzultzeko eta ahozko jarduerak interpretatzeko. Bitartean, ingelesa lingua franca bihurtzen ari da Europako hiritarren arteko komunikazioan.

Espainiar estatuan ere antzeko eszenatokia dugu. Estatu osoan, hizkuntza ofizial bakarra dago: espainiera edo gaztelania; horiez gainera, hiru hizkuntza koofizial daude: euskara, galiziera eta katalana. Estatuan eleaniztasunari eustea ez da lan erraza izan; aitzitik, espainierak gainerako hizkuntzen artean duen gailentasunean, identitate kulturalaren eta linguistikoaren babesean oinarritutako prozesu konplexu baten emaitza izan da. Europako kasuan lingua franca gisa ingelesa erabiltzen den era berean, espainiera erabiltzen da maiz espainiar estatuko hizkuntza-eremu desberdinetako hiritarren arteko komunikazio zuzenerako.

> Eleaniztasuna babestu beharreko kultura-ondarea da.

Bai Europari dagokionez, bai espainiar estatuari dagokionez, babestu beharreko kultura-ondarea da eleaniztasuna. Globalizazioak, lingua francaren erabilera gailendu eta gure hizkuntzaren erabilera murrizteko arriskua sortzen baitu, ez luke gure hizkuntza- eta kultura-ondare aberatsa alboratzen duen mekanismo bihurtu behar. Komunikazio-mundu global baten barnean, gure hizkuntza eta, harekin batera, gure identitate kulturala babesteko bideak aurkitu behar ditugu.

Gaur egungo hizkuntza-teknologiek eta ikerketa linguistikoek ekarpen handia egin dezakete eragozpen linguistiko horiek gainditzeko; izan ere, hizkuntza-

teknologiak, tresna eta aplikazio adimendunekin batera erabiliz, oso lagungarriak izango dira europarrek aise hitz egin eta salerosketak egin ditzaten, baita hizkuntza berean ari ez badira ere. Hizkuntza-teknologiek eskaintzen dituzten koponbideak hizkuntza europarren arteko zubi bikaina izan daitezke. Gaur egun merkatuan lor daitezkeen itzulpen automatikoko nahiz hizketa prozesatzeko tresnak – galderei erantzuteko sistemetatik hasi eta hizkuntza naturala darabilten interfazeetaraino, eta, besteak beste, itzulpen automatikoko sistemak eta laburpen-tresnak darabiltenak –, oraindik ere aski urrun daude asmo handiko helburu horretatik.

Hizkuntza-teknologiek eskaintzen dituzten koponbideak hizkuntza europarren arteko zubi bikaina izan daitezke.

1970eko hamarkadaren amaierarako, EB konturatua zen hizkuntza-teknologiek Europaren batasunaren gidaritzan izango zuten garrantziaz, eta, hala, lehen ikerketa-proiektua sortu zuen. Aldi berean, oso emaitza baliagarriak izan zituzten estatu-mailako proiektu asko ere jarri zituzten abian, baina inoiz ere ez europar ekintza kontzertatu baten gidaritzapean. Eremuko eragilerik garrantzitsuenak, batez ere, egoitza Amerikako Estatu Batuetan duten enpresa pribatu irabazi asmodunak dira. Gaur egungo hizkuntz-teknologia aurreratuenak hurbilketa estatistiko ez-zehatzetan oinarritzen dira eta ez dute aparteko metodo nahiz ezagutza linguistikorik erabiltzen. Esaterako, esaldiak automatikoki itzultzen dira esaldi bat gizakiek aurrez itzulitako milaka esaldirekin konparatuz. Emaitzaren kalitatea, hein handi batean, erabiliko den corpusaren tamainaren eta kalitatearen araberakoa da. Azaleko metodo estatistiko horiekin testu-material kantitate nahikoa duten hizkuntzetan esaldi sinpleak itzulita emaitza erabilgarriak lor daitezke, baina litekeena da huts egitea hizkuntza baten testu kopurua txikiagoa baldin bada edo egitura konplexuak dituzten esaldiak itzuli nahi badira. Hizkuntzen egitura-ezaugarri sakonagoa aztertuta, ondoriozta daiteke aurrerabide bakarra dela, Europako hizkuntza multzo zabaleko guztietarako ondo funtzionatuko duten aplikazioak garatuko badira.

Hortaz, hizkuntzarteko komunikazio-arazoen konponbidea da teknologia giltzarriak garatzea. Helburu hori betetzeko, baina Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasunari eutsita, behar-beharrezkoa da lehendabizi Europako hizkuntza guztien bereizgarri linguistikoak aztertzea eta hizkuntza bakoitzerako hizkuntza-teknologiek duten gaur egungo laguntzen analisi sistematiko bat burutzea. Euskararako analisia aurkeztea da, hain zuzen, liburu honen xedea. Hala, euskarako hizkuntza-teknologien, aplikazioen eta konponbideen analisi xehatua aurkezten du ale honek.

Euskara ikerketa sustatu beharra duten EBko hizkuntzetariko bat da.

Hizkuntza-teknologien eremuan, hainbat produktu, teknologia eta baliabide daude euskararako. Badira aplikazio-tresnak hizketa sintetizatzeko, hizketa ezagutzeko nahiz ortografia zuzentzeko; badira, halaber, itzulpen automatikoko aplikazio batzuk ere, espainieratik euskarara batez ere.

Liburu zuri bilduma honetan ageri denez, ikaragarrizko aldea dago Europako estatu kideen hizkuntza-baliabideen inbentarioen artean eta ikerketa-egoeren artean. Ondoriorik nabarmenenetariko bat da ikerketa sustatu beharra duten EBko hizkuntzetariko bat dela euskara, hizkuntza-teknologietan oinarritutako aplikazio benetan eraginkorrak eta egunero jardunean erabiltzeko modukoak garatuko badira. Euskararako kalitate handiko hizkuntza teknologiaren garapena oso larria eta garrantzitsua da euskara sustatzeko.

2

ARRISKUA, GURE HIZKUNTZENTZAT ETA ERRONKA HIZKUNTZA-TEKNOLOGIARENTZAT

Komunikazioan eta gizartean izugarrizko eragina izaten ari den iraultza digital baten aurrean gaude. Komunikazio-teknologia digitalizatu eta sarekoetan izan berri diren aurrerapenak Gutenbergek inprenta asmatu zuenekoarekin alderatzen dira, batzuetan. Zer esaten digu analogia horrek Europako informazio-gizartearen eta geure hizkuntzen etorkizunari buruz?

> Iraultza digitala Gutenbergek inprenta asmatu izanarekin alderatu daiteke.

Gutenbergen asmakizunaren ondoren, benetako aurrerapausoak eman ziren komunikazioan eta ezagutzen trukaketan, hainbat lani esker; esaterako, Lutherrek egin-nikoa, Biblia hizkuntza arrunt batera itzuli zuenean. Hurrengo mendeetan, teknika kulturalak garatu dira hizkuntza-prozesamendua eta ezagutza- trukaketa hobeto egiteko:

- Hizkuntza handien ortografia eta gramatika estandarizatzeak aukera eman zuen ideia zientifiko eta intelektual berriak azkar zabaltzeko;
- Hizkuntzen ofizialtasunak aukera eman zien herritarrei muga jakin batzuen barruan (sarritan, politikoak) komunikatzeko;
- Hizkuntzen irakaskuntzari eta itzulpenari esker, hizkuntzen arteko trukaketa etorri zen;
- Kazetaritzako eta bibliografiako jarraibideak sortzeak material argitaratuaren kalitatea eta eskuragarritasuna bermatu zuten;
- Hedabide berriek – egunkariek, irratiak, telebistak, liburuek eta beste batzuek – komunikazio-beharrei erantzun zieten.

Azken hogei urteotan, informazio-teknologiak lagundu egin du prozesu horietako asko automatizatzen eta errazten:

- Autoedizioko softwareak hartu du idazmakinaren eta monotipoaren tokia;
- Microsoft PowerPoint programak hartu du proiektagailuz erakutsitako gardenkien tokia;
- Mezu elektronikoen bidez faxez baino azkarrago bidali eta jasotzen dira dokumentuak;
- Skype erabiliz, Interneteko telefono-deiak egin daitezke, eta elkargune birtualak sortu;
- Audio- eta bideo-fitxategien kodetze-formatuei esker, erraza da multimedia-fitxategiak trukatzea;
- Bilatzaileetan gako-hitzak sartuz web-orrietara sar gaitezke;
- Lineako zerbitzuek itzulpen azkar eta gutxi gorabeherakoak sortzen dituzte; hor dugu, esaterako, Google Translate;
- Gizarte-hedabideen plataformek erraztu egiten dute elkarlana eta informazioa partekatzea.

Tresna eta aplikazio horiek lagungarriak badira ere, oraindik ez dute lortu informazio-gizarte europar eleaniztun eta jasangarri bat ezartzea; gizarte moderno eta inklusibo bat, non informazioa eta produktuak askatasunez ibiltzen diren alde batetik bestera.

2.1 HIZKUNTZA-MUGEK OZTOPOAK JARTZEN DIZKIOTE EUROPAKO INFORMAZIO-GIZARTEARI

Ezin dugu jakin etorkizuneko informazio-gizartea zehazki nolakoa izango den. Europaren energia-estrategiaz edo atzerriko politika bateratuaz hitz egin behar denean, Europako atzerriko ministroak beren jatorrizko hizkuntzan mintzatzen entzun nahi izango ditugu, beharbada. Agian, plataforma bat izan nahi dugu, non hainbat hizkuntza hitz egiten dituzten eta era askotako hizkuntza-mailak dituzten pertsonak gai jakin bati buruz solasean arituko diren, teknologiak haien iritziak bildu eta laburpen txikiak egiten dituen bitartean. Baliteke, halaber, beste herrialde batean dagoen osasun-aseguruen bulego batekin hitz egin nahi izatea.

> Ekonomia- eta informazio-eremu globalak hizkuntza, hizlari eta eduki desberdinen aurrean jartzen gaitu.

Argi dago gaur egungo komunikazioak, duela urte batzuetakoaren aldean, beste kalitate batekoa izan behar duela. Ekonomia eta informazio-eremu globalean, hizkuntza, hiztun eta eduki gehiagorekin egiten dugu topo, eta hedabide mota berriekin berehala harremanetan jartzeko eskatzen digute. Gizarte-hedabideak (Wikipedia, Facebook, Twitter eta YouTube) izaten ari diren arrakasta icebergaren tontorra besterik ez da.

Gaur egun, hainbat gigabyteko testuak bidal ditzakegu mundu osora segundo gutxi batzuetan, ulertzen ez dugun hizkuntza batean dagoela ohartu baino lehen. Europako Batzordeak eskatuta duela gutxi egin den txosten baten arabera, Europako Internet-erabiltzaileen % 57k bere jatorrizko hizkuntzaz bestelako hizkuntzetan erosten ditu produktuak eta zerbitzuak (ingelesa da gehien erabiltzen den atzerriko hizkuntza, eta, haren ondoren, frantsesa, alemana eta gaztelania). Erabiltzaileen % 55ek irakurtzen ditu edukiak atzerriko hizkuntza batean, baina soilik % 35ek idazten ditu mezu elektronikoak edo sareko iruzkinak [2]. Duela urte gutxi batzuk, ingelesa izan zen sareko lingua franca – sareko edukiaren parte oso handi bat ingelesez zegoen –, baina egoera goitik behera aldatu da orain. Beste hizkuntza batzuetan idatzitako edukien kantitatea izugarri handitu da sarean (batez ere, asiar eta arabiar hizkuntzetan idatzitakoena). Hizkuntza-mugek eragin duten nonahiko banaketa digitalak ez du toki handirik hartu diskurtso publikoan. Alabaina, galdera bat sortzen du behin eta berriz: "Europako zein hizkuntzak egingo du aurrera eta iraungo du sareko informazioaren eta ezagutzaren gizartean?".

2.2 GURE HIZKUNTZAK ARRISKUAN

Inprentak informazio-trukaketa eskerga ekarri zuen Europara, baina bertako hizkuntza asko desagertzea ere eragin zuen. Eskualdeetako hizkuntzak eta hizkuntza txikiak apenas erabiltzen ziren argitalpenetarako. Horren ondorioz, hizkuntza asko ahozko transmisiora mugatu ziren – adibidez, kornubiera eta dalmaziera –, eta, beraz, mugatuta gelditu zen haien etengabeko ikaskuntza, zabalkundea eta erabilera.

Hizkuntza-aniztasuna da Europaren kultura-ondasun aberats eta garrantzitsuenetakoa (80 bat hizkuntza ditu). Europaren hizkuntza-aniztasuna haren arrakasta sozialaren ezinbesteko parte ere bada. Hiztun askoko

hizkuntzek eutsiko diote suspertzen ari den gizartean eta merkatu digitalean duten tokiari, dudarik gabe, baina baliteke Europako hizkuntza asko komunikazio digitaletatik baztertuta geratzea eta garrantzia galtzea Interneteko gizartearen begietara. Hori ez litzateke batere ona izango. Alde batetik, aukera estrategiko bat galduko litzateke, eta horrek ahuldu egingo luke Europaren posizioa munduan. Bestetik, gertaera horiek ez datoz bat Europako herritar guztien (edozein hizkuntza izanda ere) berdintasunezko parte-hartzea bermatzeko helburuarekin. UNESCOk eleaniztasunaren inguruan eginiko txostenak dioenez, hizkuntza funtsezko bitartekoa da oinarrizko eskubideez gozatzeko – adibidez, adierazpen politikoa, hezkuntza eta gizarteko parte hartzea [3].

Hizkuntza-aniztasuna da
Europako kultura-ondasun aberats
eta garrantzitsuenetarikoa.

2.3 HIZKUNTZA-TEKNOLOGIA TEKNOLOGIA BIDERATZAILE GILTZARRIA DA

Lehen, hizkuntzaren irakaskuntzara eta itzulpenetara bideratzen ziren inbertsioak. Adibidez, kalkulu batzuen arabera, itzulpen, interpretazio, software-lokalizazio eta webgune globalizazioaren merkatu europarra 8,4 mila milioi eurokoa zen 2008an, eta urtean % 10 haztea espero zen [4]. Alabaina, merkatu horren ahalmena ez da nahikoa oraingo eta geroko beharrak asetzeko.

Hizkuntza-teknologia teknologia bideratzaile giltzarria da, Europako hizkuntzak babestu eta bultzatu ditzakeena. Hizkuntza-teknologiak laguntza ematen dio jendeari elkarlanean aritzeko, negozioak egiteko, ezagutza besteekin banatzeko, eta eztabaida sozial eta politikoetan parte hartzeko, dena delako hizkuntza-mugak eta informatikako trebetasunak izanda ere. Hizkuntza-teknologiak laguntzen digu jada eguneroko lanetan, hala nola mezu elektronikoak idaztean, lineako ikerketa bat egitean edo hegaldi bat erreserbatzean. Eragiketa hauek egitean ere hizkuntza-teknologiaz baliatzen gara:

- Interneteko bilatzaile baten bidez informazioa aurkitzen dugunean.;
- Testu-prozesadore batean ortografia eta gramatika egiaztatzen dugunean;
- Lineako denda batean produktu baten gaineko gomendioak begiratzen ditugunean;
- Nabigazio-sistema baten ahozko jarraibideak entzuten ditugunean;
- Lineako zerbitzu baten bidez web-orriak itzultzen ditugunean.

Lan honetan agertzen diren hizkuntza-teknologiak etorkizuneko aplikazio berritzaileen oinarrizko osagaia dira. Hizkuntza-teknologia, normalean, teknologia bideratzailea izaten da, eta aplikazio-plataforma handiago baten barruan joan ohi da, nabigazio-sistema edo bilatzaile baten barruan adibidez. Liburu zuri honetan aztertzen da teknologia komunak hizkuntza bakoitzerako zenbateraino dauden prestatuta.

Europak hizkuntza-teknologia sendoak
eta modu onean erosteko modukoak
behar ditu hango hizkuntza guztietarako.

Laster behar izango dugu Europako hizkuntza guztietarako hizkuntza-teknologia bat, eskuragarri dagoena, modu onean eros daitekeena eta software-esparru handiagoetan ondo integratuta dagoena. Erabiltzaileak ez du funtzio interaktiboak, multimediakoak eta eleaniztunak erabiltzerik hizkuntza-teknologiarik gabe.

2.4 HIZKUNTZA-TEKNOLOGIAREN AUKERAK

Hizkuntza-teknologiak aukera eman diezaieke Europako hizkuntza guztiei itzulpen automatikoak egiteko, edukiak sortzeko, informazioa prozesatzeko eta ezagutzak kudeatzeko. Hizkuntza-teknologiak balio dezake, halaber, etxetresna elektroniko, aparailu, ibilgailu, ordenagailu eta robotentzako hizkuntzan oinarritutako interfaze intuitiboak garatzeko. Hainbat prototipo atera diren arren, aplikazio komertzial eta industrialak hasierako fasean daude oraindik. Ikerketan eta garapenean egin berri diren lorpenek benetako abagunea eman diote. Adibidez, itzulpen automatikoak (IA) zehaztasun handi samarra ematen du jada esparru jakin batzuetan, eta aplikazio esperimentalek informazio eleaniztuna eta ezagutza-kudeaketa eskaintzen dute, baita Europako hizkuntza askotan edukiak sortzeko aukera ere. Hizkuntza-aplikazioak, ahots bidezko erabiltzaile-interfazeak eta elkarrizketa-sistemak oso eremu espezializatuetan egon ohi dira eskuarki, eta errendimendu mugatua izan ohi dute maiz. Hizkuntza-teknologia hondamen eremuetako erreskate-lanetarako erabiltzea ari dira ikertzen orain. Arrisku handiko inguru horietan, itzulpenaren zehaztasuna hil ala biziko kontua izan daiteke. Antzekoa gertatzen da osasungintzan ere. Hizkuntzarteko ahalmenak dituzten robot inteligenteek biziak salba ditzakete.

Hizkuntza-teknologiek sekulako merkatu-aukerak dituzte hezkuntzan eta entretenimenduen industrian; izan ere, jokoetan, joko hezigarrietan, simulazioetan eta prestakuntza-programetan integra daitezke. Hizkuntza-teknologiak zeregin garrantzitsua izan dezake beste hainbat tokitan ere; besteak beste, mugikorretako informazio zerbitzuetan, ordenagailuz lagundutako hizkuntza-ikaskuntzarako softwarean, Internet bidezko ikaskuntzako inguruneetan, autoebaluazio-tresnetan eta plagioak aurkitzeko gailuetan. Gizarte-hedabideen aplikazioek (adib. Twitter eta Facebook) duten arrakastak iradokitzen du gero eta gehiago behar direla hizkuntza-teknologia sofistikatuak, gai direnak mezuak behatzeko, eztabaidak laburbiltzeko, iritzi-joerak iradokitzeko, erantzun emozionalak detektatzeko, copyrightaren arau-hausteak identifikatzeko eta erabilera desegokien jarraipena egiteko.

> Aniztasun linguistikoak sortzen dituen "eragozpenak" gainditzen laguntzen dute hizkuntza-teknologiek.

Hizkuntza-teknologiak aukera paregabea ematen dio Europar Batasunari, bai ekonomia aldetik, bai kultura aldetik. Eleaniztasuna arau bilakatu da Europan. Europako negozioak, erakundeak eta eskolak ere nazioartekoak eta askotarikoak dira. Herritarrek elkarrekin komunikatu nahi dute Europako Merkatu Batuan, oraindik ere hor dauden hizkuntza-mugez harago. Hizkuntza-teknologiak hor jarraitzen duten muga horiek gainditzen lagundu dezake, eta, era berean, hizkuntzaren erabilera askea eta irekia bultzatu. Gainera, Europako hizkuntzetarako hizkuntza-teknologia eleaniztun eta berritzaileak munduko beste herrialdeekin eta haietako komunitate eleaniztunekin komunikatzen lagunduko liguke. Hizkuntza-teknologiek nazioarteko ekonomia-aukera ugari ematen dituzte.

2.5 HIZKUNTZA-TEKNOLOGIAREN ERRONKAK

Azken urteotan hizkuntza-teknologiak aurrerapen handi samarra egin badu ere, aurrerapen teknologikoa eta produktuen berrikuntza erritmo motelean doaz gaur egun. Ezin dugu hamar edo hogei urtez itxaron gure inguru eleaniztuneko komunikazioa eta produktibitatea areagotuko duten hobekuntza nabariak agertu arte.

Aurrerapen teknologikoa eta produktuen berrikuntza erritmo motelean doaz gaur egun.

Erabilera handiko hizkuntza-teknologiak – hala nola testu prozesadoreetako ortografia- eta gramatika-zuzentzaileak – hizkuntza bakarrean izaten dira normalean, eta hizkuntza gutxi batzuetan bakarrik egon ohi dira eskuragarri. Komunikazio eleaniztunerako aplikazioek sofistikazio-maila bat eskatzen dute. Itzulpen automatikoa eta lineako zerbitzuak – esaterako, Google Translate edo Bing Translator – apartak dira dokumentu baten edukien gutxi gorabeherako itzulpenetarako. Baina, lineako zerbitzu eta IA aplikazio profesional horiek hainbat zailtasun izaten dituzte oso itzulpen zehatzak eta osatuak behar direnean. Okerreko itzulpen barregarri ezagunak asko dira (hor ditugu, esaterako, Bush edo Kohl izenen itzulpen literalak), eta agerian uzten dute zer-nolako erronkei egin behar dien aurre hizkuntza-teknologiak.

Aurrerabide teknologikoak arinago joan beharra du.

2.6 HIZKUNTZAREN JABETZEA GIZAKIENGAN ETA MAKINETAN

Ordenagailuek hizkuntza nola tratatzen duten eta hizkuntzaren jabetzea horren zaila zergatik den azaltzeko, ikus dezagun gizakiok nola jabetzen garen lehen eta bigarren hizkuntzez, eta, gero, itzulpen automatikoko sistemen funtzionamenduaren eskema egingo dugu – zerbaitengatik du hizkuntza-teknologiaren alorrak horren lotura estua adimen artifizialaren arloarekin.

Gizakiak bi modutan jabetzen dira hizkuntza-gaitasunez. Hasieran, hizkuntza bateko hiztunen arteko elkarreragina entzunez ikasten du umeak hizkuntza hori. Hizkuntzaren erabiltzaileek – gurasoek, anaiarrebek edo beste senide batzuek, esaterako – eratutako hizkuntza-adibide zehatzak entzuteak lehen hitzak eta esaldi laburrak esaten laguntzen die bi urte inguruko umeei. Hizkuntzak ikasteko antolaketa genetiko bereziak eman digu gizakioi gaitasun hori.

Normalean, bigarren hizkuntza ikasteak ahalegin askoz handiagoa eskatzen du, umea ez baitago bertako hiztunen hizkuntza komunitate baten barruan. Eskola garaian, atzerriko hizkuntzez jabetzeko, haien egitura gramatikala, hiztegia eta ortografia ikasten dira liburuetatik eta ikasmaterialetatik, eta, haietan, arau abstraktu, taula eta adibidezko testuen bidez azaltzen da hizkuntza. Atzerriko hizkuntza bat ikasteak denbora asko eta ahalegin handia eskatzen ditu, eta orduan eta zailagoa da adinean aurrera egin ahala.

Gizakiak bi modutan jabetzen dira hizkuntza-gaitasunez: adibideetatik ikasiz eta arau linguistikoak ikasiz.

Hizkuntza-teknologiaren bi sistema-mota nagusiak gizakien antzera jabetzen dira hizkuntza-ahalmenez. Metodo estatistikoan, hizkuntza bakarrean idatzitako adibidezko testu zehatzen bildumetatik edo bi hizkuntza edo gehiagoko testu paralelo deritzenetatik lortzen da hizkuntza-ezagutza. Ikaskuntza automatikoko algoritmoen nolabaiteko hizkuntza-gaitasunak adieraz dezake hitzak, esaldi laburrak eta esaldi osoak zuzentasunez nola erabili hizkuntza batean edo nola itzuli hizkuntza batetik bestera. Metodo estatistikoetarako behar den esaldi-kopurua ikaragarria da. Lanaren kalitatea handiagotu egiten da zenbat eta testu gehiago aztertu. Milioika esaldiko testuen gainean probatzen dituzte maiz sistema horiek. Horregatik ibiltzen dira bilatzaileen hornitzaileak ahalik eta idatzizko

material gehien bildu nahian. Testu-prozesadoreen ortografia-zuzentzaileek, linean eskuragarri dagoen informazioak eta Google Search eta Google Translate bezalako itzulpen-zerbitzuek metodo estatistikoa (datuek gidaturikoa) dute oinarrian.

Erregeletan oinarritutako sistemak dira bigarren hizkuntza-teknologia nagusia. Hizkuntzalaritzako, hizkuntzalaritza konputazionaleko eta informatikako adituek azterketa gramatikalak (itzulpen-arauak) kodetu eta hiztegi-zerrendak (lexikoiak) osatzen dituzte. Erregeletan oinarritutako sistema ezartzeko, denbora eta esku-lan asko behar da. Era berean, oso aditu espezializatuak behar dira halako sistemak sortzeko. Erregeletan oinarritutako itzulpen automatikoko sistema garrantzitsuenetako batzuek etengabeko garapena izan dute azken hogei urteotan. Erregeletan oinarritutako sistemen alde ona da adituek kontrol zehatzagoa lor dezaketela hizkuntzaren prozesamenduaren gainean. Hortaz, softwareko akatsak sistematikoki zuzendu daitezke eta feedback zehatza eman dakioke erabiltzaileari, erregeletan oinarritutako sistemok hizkuntza ikasteko erabiltzen direnean batik bat. Finantza-sarrera mugatuak direla bide, erregeletan oinarritutako hizkuntza-teknologia hizkuntza handietan bakarrik erabil daiteke.

Sistema estatistikoaren eta erregelatan oinarritutako sistemaren indarguneak eta ahuleziak osagarriak izan ohi direnez, gaur egungo ikerketen joera da bi metodologiak batera lantzen dituen metodo hibridoa erabiltzea. Hala eta guztiz ere, metodo horiek, aplikazio industrialetan ez dute izan, orain arte, ikerketa-laborategietan bezain emaitza onik.

Kapitulu honetan ikusi dugunez, gaur egungo informazio-gizartean oso erabiliak diren aplikazio askok hizkuntza-teknologiak dituzte oinarrian. Areago gertatzen da hori Europako ekonomiaren eta informazioaren esparruan, hizkuntza anitzeko komunitatea dela kontuan hartzen badugu. Hizkuntza-teknologiek urte gutxian aurrerapauso handiak eman badituzte ere, bide luzea dago, oraindik ere, hizkuntza-teknologietan oinarritutako sistemen kalitatea hobetzeko. Datozen ataletan, euskarak Europako informazio-gizartean duen eginkizuna deskribatuko dugu, eta, halaber, euskarazko hizkuntza-teknologien egungo egoera aztertuko dugu.

3

EUSKARA EUROPAKO INFORMAZIO GIZARTEAN

3.1 DATU OROKORRAK

Euskara, Nafarroako Erresumako hizkuntza nagusia zelako latinez "Lingua Navarrorum" esaten zitzaiona, mendebaldeko Europan bizirik dagoen hizkuntza preindoeuropar bakarra da. Hizkuntza bakartutzat jotzen da, ez baitzaio loturarik aurkitu beste hizkuntzekin, antzinako akitanierarekin izan ezik. Euskararen jatorria nahiz beste hizkuntzekiko duen lotura gai gatazkatsuak eta interesgarriak dira oraindik ikerlarientzat.

Euskarak 800.000 hiztun inguru ditu.

Euskara, gaur egun, eskualde txiki batean hitz egiten da, Pirinioen mendebaldean, Espainiaren eta Frantziaren arteko mugaren bi aldeetan, euskaldunek *Euskal Herria* deritzen eskualdean. Hizkuntza lurrak galduz joan da hainbat mendez, hegoaldean batez ere. Duela gutxi, Francoren diktaduraren garaian, euskara erabiltzea debekatu zutela eta, hizkuntzak berreskuratu ezinezko galera izan zuen.

Ikaragarrizko ahaleginak egin ziren hizkuntza bizibeerritzeko; batez ere, 1960ko hamarkadan, ikastolen sorrerari esker euskara hezkuntza-sisteman sartu zenean; klandestinitatean hasierako urteetan. Alabaina, euskararen berreskuratze-prozesua ez zen hasi 1980ko hamarkadara arte, autonomiak sortu eta Eusko Jaurlaritzari hizkuntzaren gaineko eskumen politikoak eman zitzaizkion arte.

Ahalegin ikaragarriak egin ziren arren, euskara hizkuntza "ahul" moduan agertu zen 2009an Unescok Munduko Arriskupeko Hizkuntzen Mapan [5] atera zuenean. Gaur egun, kalkulatzen da Euskal Herriko biztanleriaren [6] % 26 inguruk hitz egiten duela euskara, Espainiaren administraziopeko aldean nahiz Frantziaren administraziopeko aldean, baina bietan ez du estatus bera.

Alde batetik, Euskal Herriaren Espainiako partea bi eskualde politikotan banatuta dago: Euskal Autonomia Erkidegoan, euskara koofiziala da gaztelaniarekin batera, baina gaztelaniaren alderako zenbait desberdintasunekin; Nafarroako Foru Erkidegoan, hiru eremu daude, euskararen legezko estatusaren araberakoak: euskalduna, erdalduna eta mistoa. Hizkuntzarekiko atxikimendua eta hizkuntza-eskubideak ezberdinak dira hiru eremu horietan. Bestetik, Frantziako aldean, Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren mendebaldeko partean hitz egiten da euskara, baina inoiz ez du izan inolako legezko estatusik eta ez da ofiziala inongo erakundetan. Dena dela, duela urte batzuk (2004an), erakunde publiko bat sortu zen Iparraldean euskara bultzatzeko helburuarekin.

Ahozko euskarak oso dialekto-sakabanaketa handia du. Gaur egun, onartzen da sei euskalki daudela, elkarren artean alde nabariak dituztenak. Euskara batua ez zen ofizialki ezarri 1968. urtera arte, orduan egin baitzuen Euskaltzaindiak [7] lehen estandarizazio-proposamena. Euskalkiok ezberdintasun nabariak dituzte hainbat alderditan: hiztegia, fonetika, morfofonologia eta proso-

dia, azentua eta intonazioa. Euskalkiak ez dira entitate homogeneoak; etengabe aldatzen dira batetik bestera, eta, batzuetan, ez dago hain argi bi edo hiruren arteko muga.

3.2 EUSKARAREN BEREZITASUNAK

Euskara hizkuntza eranskaria eta flexio handikoa da, eta hizkuntza ergatibo-absolutiboa izatea da bereizgarri nagusia. Horrek esan nahi du aditz iragangaitz baten subjektua absolutibozko kasuan (markatu gabekoan) joan ohi dela, eta kasu hori bera erabiltzen dela aditz iragankorren objektu zuzenarentzat; aditz iragankorraren subjektua beste era batean markatzen da, ergatibozko kasuaren bidez: *-k* atzizkia.

Euskara postposiziozko hizkuntza da; beraz, kasuzko eta postposiziozko esaldiak sintagmaren amaieran atzizki bat edo gehiago gehituta eratzen dira, eskema honen arabera:

erroa + (artikulua) + (numeroa) + [kasua(k)]

Adibidez, "mutilarenagana" honela dago osatuta: «mutil+a+Ø+r+en+gan+a», – "mutil" lema edo izenerroa da; "a", artikulua; "Ø", singularreko marka; "r", epentesi-partikula; "en", edutezko genitiboa; "gan" izaki bizidunen marka; eta "a", adlatiboa.

Ezaugarri garrantzitsua da hori, hizkuntza naturalean eta hizketa-prozesamenduan kontuan hartu beharrekoa; bada, izen sintagma bakoitzak 17 deklinabide-kasu izan ditzake, eta lau aldiz forma gehiago har ditzake zehaztasunaren eta numeroaren arabera. Hasierako 68 forma horiek are gehiago alda daitezke esaldiko beste zati batzuen arabera – hango izenen arabera ere deklinatzen direlako. Kalkulatzen da bi mailatako errekurtsioarekin euskarazko izen batek 275 deklinabide-marka izan ditzakeela, eta hori oso ohiko fenomenoa [8] da, gainera. Horrek aditzera ematen du beharrezkoa dela hainbat eratako bukaera horiek guztiak tratatzeko modu bat aurkitzea, oinarrizko hiztegi batetik abiatuta.

Aditzak dira euskara hizkuntza eranskaria dela erakusten duen beste adibide bat. Aditz laguntzailea aditz nagusi gehienekin batera joan ohi da, eta, subjektuarekin ez ezik, esaldian dagoen beste edozein objektu zuzen edo zeharkakorekin ere komunztatzen da. Europako hizkuntzen artean, pertsona askorekiko komunztadura hori euskaran, Kaukasoko hizkuntza batzuetan eta hungarieran baino ez da topatu (guztiak ez-indoeuroparrak). Euskaran, aditzen eskema honi jarraitzen zaio:

[aditz-erroa + aspektu-marka] [aditz laguntz.]

Adibidez, euskara batuan, «esaten zenizkidaten» honela dago osatuta: «esan» (aditz-erroa) + «ten» (maiztasun-aspektua) eta «zen+i+zki+da+Ø+te+n» aditz laguntzailea («zen» bigarren pertsonaren ergatibo-marka da; «i», aditz laguntzailearen erroa; «zki», hirugarren pertsona pluralaren absolutibo-marka; «da», lehen pertsona singularraren datibo-marka; «Ø», indikatibo marka; «te», pluralaren ergatibo-marka; eta «n», iraganaldiko marka). Aditza horren konplexua izanda, aditz laguntzaile bakoitza morfemetan banatu beharrean osorik tratatu ohi da hizkuntza naturalaren prozesamendurako ikerketetan.

Esaldiko hitzen hurrenkerari dagokionez, oinarrizko eraikuntza sintaktikoa subjektua-objektuak-aditza da (gaztelanian, frantsesean eta ingelesean, aldiz, subjektua-aditza-objektuak da ohikoena). Esaldi barruko sintagmen hurrenkera alda daiteke mintzagaiaren arabera, baina sintagma barruko hitzen hurrenkera zurruna da normalean. Bada, argitu behar da euskararen sintagma-hurrenkera mintzagaia-galdegaia dela; hau da, esaldi neutroetan (norbaiti gertaera baten berri emateko esaldiak, kasurako), mintzagaia ematen da lehenik, eta galdegaia ondoren. Halako esaldietan, aditz-sintagma amaieran joan ohi da. Laburbilduz, galdegaia aditz-sintagmaren aurre-aurrean doa.

Galderetan ere betetzen da arau hori; esaterako, «Zer da hau?» edo «Hau zer da?» esan daiteke, baina bietan «zer» galdetzailea «da» aditzaren aurre-aurrean doa. Arau hori horren garrantzitsua da euskaran, non beste hizkuntzetan ematen diren euskararen deskribapen gramatikaletan ere euskarazko hitza (*galdegai*) erabiltzen baita.

Euskararen ortografia fonemikoa da ia erabat: grafema bakoitza fonema bati dagokio, eta, beraz, hitz baten ahoskera erraz iragar daiteke idatzizko formatik. Dena dela, badaude salbuespen gutxi batzuk: <l> eta <n> letrek aurretik <i> letra eta atzetik bokal bat badute, bustidura egin ohi da; adib. mutila → <mutiLa>. Beste adibide bat "ez" ezezko partikularen amaierako kontsonante fonemarena da, atzetik datorren fonema ahoskabe bihurtzen baitu; adib. ez dira → <eztira>.

Euskarak sei soinu bokaliko eta hogeita hamabost soinu kontsonantiko ditu.

3.3 AZKEN GERTAERAK

Euskaltzaindiak, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofizialak, euskararen forma estandarizatua atera zuen 1960ko hamarkadan, *Euskara Batua* izenekoa. Euskara egoera formaletan (hezkuntzan, hedabideetan, literaturan...) eta euskal hiztun guztiek ulertzeko eran erabil zedin asmatu zen euskara batua, eta gaur egun ere horretarako erabiltzen da batik bat.

Literatura klasikoko tradizioa dela eta, euskara batua erdialdeko euskalkian eta nafar-lapurteran oinarritzen da nagusiki. Ertzetako euskalkiak oso ezberdinak dira, nahiz eta mendebaldekoa hiztun gehien dituenetako bat izan erdialdekoarekin batera.

Euskara batuak oinarri sendoak ditu, eta aurrerapausoak ematen ari da sintaxiaren eta naturaltasunaren aldetik. Gaur egun, euskara ikasten duten ia guztiek euskara batua ikasten dute. Horren ondorioz, fenomeno berezi bat gertatu da Euskal Herri osoan: euskaldun zaharrak beren euskalkian mintzatzen dira herriko jendearekin eta euskara batuan euskaldun berriekin. Mendebaldean, hango euskalkiaren eta batuaren arteko desberdintasun nabariak direla eta, euskara-ikasleei iruditzen zaie ikasten ari diren hizkuntza oso urrun dagoela jendearen ahotan dabilen euskara horretatik. Bestalde, jada badaude euskara batua ama-hizkuntzatzat duten euskaldun batzuk, euskaldun berri askok beren umeei euskaraz egitea erabaki baitute, nahiz eta beren lehen hizkuntza gaztelania izan.

Hala eta guztiz ere, euskararen teorialariek [9] gero eta argiago ikusten dute, euskararen geroa bermatuko bada, beharrezkoa dela euskara batua ez ezik egungo euskalkiak ere sustatzea. Hortaz, euskalkiek izango dute nolabaiteko garrantzia euskaraz eskainiko diren HTko aplikazioetan.

Euskal hizkuntza-teknologiaren komunitatea eta ikerlariak ohartu dira zer-nolako garrantzia duten teknologiek hiztun gutxiko hizkuntza batek XXI. mendean aurrera egin dezan, eta sekulako ahaleginak egin dituzte euskara gehien erabiltzen diren hizkuntzen maila berean jartzeko teknologia aldetik. Eskarmentu zientifiko sendoa du euskarak, bai eta aldameneko zenbait hizkuntzek ere, hala nola katalanak eta galizierak; hori ez da Europan beste inon gertatu, ez eta eskualdeko hizkuntza batzuek hizkuntzarteko produktu eta zerbitzuak garatzea ere.

Argi dago zeinen garrantzitsua den euskararako hizkuntza-teknologiaren industria garatzea, eta horrexegatik sortu da *Langune* [10] elkartea ere. Langune hizkuntzen industriaren alorreko Euskal Herriko enpresen elkartea da. Elkartea 2010ean sortu zen, eta itzulpengintzaren, edukien, irakaskuntzaren eta hizkuntza-teknologiaren alorreko 30 enpresa baino gehiago biltzen ditu. Languneren helburu nagusia da hizkuntza-teknologiaren sektorea garatzea, eta erreferentzia-puntu bilakatzea Europako hizkuntzen industriarentzat, aha-

leginak biderkatu gabe eta sinergiak lortuz. Langune hasi besterik ez da egin, baina urrats ikaragarriak ari da egiten.

3.4 HIZKUNTZA-LANKETA

Euskararen ordezkari nagusia Euskaltzaindia da, euskal hizkuntzaren akademia ofiziala (1919). Hizkuntza ikertzen du, babesten saiatzen da eta erabilera-arauak ezartzen ditu. Onarpen ofizial osoa du Espainian (1976), eta onura publikorako kultura-elkartetzat onartzen da Frantzian (1995).

Euskal Autonomia Erkidegoan euskara hizkuntza ofizial deklaratu zenetik, Eusko Jaurlaritzak hainbat arau eta lege egin ditu euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko. Hainbat erakunde sortu dira harrezkero: Euskararen Aholku Batzordea (1982), EiTB (Euskal Irrati Telebista, 1982), HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea, 1983) eta beste hainbat. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) 1998an jarri zen abian, tresna estrategiko moduan eta hiru helburu nagusirekin: adostasun batera iritsi erakundeen xede eta ekintzen artean, eratze-programetarako lehentasunak ezarri eta euskararen alde lan egiten duten erakundeen, enpresen eta elkarteen jarduerak koordinatu. Plan estrategiko horren barruan, aldian behin egiten diren inkesta soziolinguistikoak baliagarriak dira beste helburu batzuk eta zuzenketa-ildoak ezartzeko.

Eusko Jaurlaritzak badu euskarari buruzko web-atari bat www.euskara.euskadi.net, eta, han, hizkuntzari, haren historiari eta gaur egungo egoerari buruzko informazioa ez ezik, hizkuntzarekin lotutako era guztietako zerbitzu, produktu eta aplikazioetarako estekak ere badaude – eratze-programa publikoetarakoak barne.

Frantziako aldean, "Euskararen Erakunde Publikoa" [11] 2004an sortu zen, interes publikoko elkarte moduan, lau erakunde publiko – herri- edo eskualde-erakundeak – eta estatua elkartuta, eta eskualdean hizkuntza-politika bateratua sortu eta ezartzeko asmoz.

3.5 HIZKUNTZA HEZKUNTZAN

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1983an sartu zen euskara hezkuntza-sistema publikoan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan euskararen eta gaztelaniaren erabilera arautzen duen legearekin. Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako, hiru eredu sortu ziren, eta ikastetxe bakoitzari aukeran eman zitzaion zein eredu eskaini.

A ereduan, komunikazio-hizkuntza gaztelania da, eta euskara "Euskal hizkuntza eta literatura" irakasgaian ematen da. D ereduan – euskaraz, c letra ez da erabiltzen, normalean –, euskara da komunikazio-hizkuntza, eta ikasgai bat ematen da gaztelaniaz, "Gaztelania eta literatura". B ereduan edo tarteko ereduan, ikasgai batzuk gaztelaniaz ematen dira (batez ere, irakurketa eta idazketa eta matematika) eta beste batzuk euskaraz (nagusiki, zientziak eta plastika).

Alabaina, A eredua gero eta ikasle gehiago galduz joan zen, eta B eredua gero eta ikasle gehiago hartuz, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan batik bat – ikasleen erdiak baino gehiagok D ereduan ikasten du aldi horietan. Dena den, 15 urteko ikasleen % 85ek gaztelaniaz egin zituen PISA programaren [12] azterketak, eta % 15ek bakarrik egin zituen euskaraz; horrek argi uzten du gaztelania dela hizkuntza nagusia hezkuntzan.

Nafarroako Erkidegoan, euskarak hainbat mailatako estatus ofiziala duen tokian, laugarren eredu bat ere jarri zuten, euskara derrigorrezko ikasgai gisa ere eskaintzen ez zuena.

Iparraldeko probintziei dagokienez, euskarazko Lehen Hezkuntza eskola-sare pribatu batek ematen du, Seaskak, eta, gaur egun, 2.700 bat ikasle ditu 29 ikastetxetan – Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eta lizeo bat bakarrik daude.

Azkenaldian, eredu berriak ari dira proposatzen eta probatzen, ingelesaren ikasketa goiztiarrari garrantzia ematen dioten ereduak. Eusko Jaurlaritzak eredu hirueleduna jarri du martxan duela gutxi, eta, Nafarroan, berriz, gaztelaniaz eta ingelesez ematen den hezkuntza elebi-

duna jarri dute, nahiz eta euskara aukeran eskaintzen duten. Hezkuntza-maila handiagoetan, gaztelania da nagusi, ezbairik gabe. Hiru unibertsitate daude, eta publikoa, bakarra: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). EHUk euskaraz ikasteko aukera ematen du, eta, euskaraz eta gaztelaniaz eskaintza bera egiteko sekulako ahaleginak egin diren arren, oso gradu gutxi ikas daitezke euskara hutsean. Nabarmentzekoa da Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua [13] master eta doktorego-programa euskara hutsean ematen dela 2001. urtetik. Mondragon unibertsitate pribatuak euskaraz eskaintzen ditu gradu gehienak, eta master batzuk ere bai. Hirugarren unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak, ikasketa batzuk baino ez ditu eskaintzen euskaraz.

3.6 NAZIOARTEAN

2009ko urtarriletik, Etxepare Euskal Institutua da euskal hizkuntza eta kultura mundu osoan zabaltzeaz arduratzen den euskal erakunde publikoa. Institutu horren asmoa da euskararen irakaskuntza, ikaskuntza eta erabilera bultzatzea mundu osoan, eta euskara hizkuntza komuntzat daukaten komunitate guztien ekarpenak biltzen ditu. Institutuaren xedea da, halaber, euskal kultura nazioarteko komunitatean barreiatzea, euskara hitz egiten duten talde horiei erreferentzia berezia eginez, euskal diaspora barne. Historian, euskaldun askok alde egin dute Euskal Herritik munduko beste txoko batzuetara, arrazoi ekonomiko eta politikoak direla eta; euskal diaspora izena jarri zitzaion aberritik kanpo bizi den euskal jatorriko jendeari. Gaur egun, euskal jatorriko jende dezente bizi da Txilen, Argentinan, Bolivian, Ekuadorren, Kolonbian, Kuban, Mexikon, Venezuelan, Kanadan eta Estatu Batuetan. Haietan guztietan, euskal kulturaguneak daude, Euskal Etxeak, helburu bera lortzeko sortutakoak: euskal kultura eta nortasunari eustea. 24 herrialdetako hiri handi gehientsuenetan daude Euskal Etxeak [14].

Euskararen jatorriak eta egitura bereziak euskal hizkuntza eta kultura ikasteko interesa piztu dute. Gaur egun, Amerikako eta Europako 13 herrialdetako 29 unibertsitatetan ikas daiteke.

Nazioarteko erakundeetan duen tokiari dagokionez, Espainiako gobernua saiatu da Europako erakundeen hizkuntza ofizialetan euskara sartzen, katalanarekin eta galegoarekin batera. Baina, gaur egun, ez dira hizkuntza ofizialtzat jotzen; erdiofizialak dira, eskoziera, gaelikoa eta galesarekin batera. Euskara oso leku gutxitan erabil daiteke: Eskualdeetako Lantaldearen eta Kontseiluaren saioetan hitz egin daiteke, baina Europar Legebiltzarraren osoko bilkuretan, ez. Herritarrek eskubidea dute, halaber, Europako erakundeei euskaraz idazteko eta erantzuna hizkuntza berean jasotzeko, baina Espainiako Gobernuaren bitartez egin behar dute beti, eta hark ordaindu behar ditu gastuak.

Euskara sartuta dago Europar Batasuneko Eskualdeetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Txikien Zerrendan [15], eta, beraz, jasotzen du laguntza Europar Legebiltzarrak eskualde-hizkuntzetako eta hizkuntza txikietako ekintzak sustatzeko egindako ebazpenetatik.

> Mundu osoan zehar 29
> unibertsitatetan euskara irakasten da.

Hizkuntza-teknologiak beste ikuspegi batetik egin diezaioke aurre erronka horri, atzerriko hizkuntzako testurako itzulpen automatikoa edo hizkuntzarteko informazio-berreskurapena bezalako zerbitzuak eskainiz, eta, hala, lagundu egin dezake berezko ingeleshiztunak ez direnek dituzten desabantaila pertsonal eta ekonomikoak murrizten.

3.7 EUSKARA INTERNETEN

2010. urtearen lehen hiruhilabetekoan, Euskal Herriko etxeen % 61,4tan (513.000) ordenagailua zegoen.

460.000 familia baino gehixeago zeuden, eta horietatik % 54,9k Interneterako sarbidea zuten beren etxeetan. Horrenbestez, 15 urte edo gehiagoko milioi bat lagun baino gehiago Internet-erabiltzaileak ziren. Gehienek esan zuten egunero konektatzen zirela. % 22,9k bakarrik erabiltzen zuen euskara Interneten. Hala eta guztiz ere, euskaldunen artean Internet-erabiltzaileen talde sendo eta gogotsu bat dago. Euskarazko blogek, euskarazko Wikipediak nahiz lineako zerbitzuek eta doako softwarean oinarritutako sistema eragile eta tresnen kokapenak euskara eta euskal kultura Interneten nahiz IKTetan egotearen aldeko apustua egin dute, eta, hala, euskara zabaldu dute. Esaterako, Euskal Wikipediak 120.000 artikulu baino gehiago ditu; wikipedia guztien artean artikulu gehien dituen 36.a da. Eta ahalegin handiak egin dira software-programa [16, 17] eta baliabide arruntak [18, 19, 20, 21, 22] euskaraz eskaintzeko.

Interneteko 1.000 webgune garrantzitsuenen artean, % 0,5etan erabiltzen da euskara.

Lehen mailako domeinu berri bat erregistratu da, .eus, eta 2012. urtean jarriko da abian. Aurretiko izenemateak 193 dira jada. Proposaturiko .eus domeinua euskal hizkuntza eta kulturaren komunitatea Interneten ordezkatuko duen izena izango da. Ikur hori euskal kultura eta euskara sustatzeko tresna bihurtuko da, eta, alde horretatik, .eus domeinua mekanismo eraginkorra izango da euskara mundu osoan estandarizatzeko. .eus domeinuak, Interneteko toki birtualean, euskara modu eraginkorrean sustatzen dela ziurtatuko du, eta, era berean, nazioartearen onespena bermatuko du. Era berean, .eus domeinuak Interneten kulturaniztasuna indartu eta zabalduko du, hizkuntza- eta kultura-komunitateei beren domeinua izaten uzteak Interneten bihotz-bihotzean jartzen baitu kulturaniztasuna. Hizkuntzarekin eta kulturekin zerikusia duten domeinuak indargarri eta onuragarri dira hizkuntza- eta kultura-komunitate horientzat, baina Internetentzat berarentzat ere bai [23].

Euskal Wikipediak 123.787 artikulu ditu, eta 36. Wikipediarik handiena da, artikulu kopuruari dagokionez.

Hizkuntza-teknologiarentzat garrantzitsua da Internet gero eta indartsuagoa izatea, bi arrazoirengatik. Batetik, eskuragarri dauden hizkuntzari buruzko datu digitalizatuak iturri aberatsa dira hizkuntza naturalaren erabilera aztertzeko, informazio estatistikoa bilduz nagusiki. Bestetik, hizkuntza-teknologia erabiltzen duten era askotako aplikazio-eremuak eskaintzen ditu Internetek.

4

HIZKUNTZA-TEKNOLOGIA EUSKARARAKO

Hizkuntza-teknologiak giza hizkuntzarekin lan egiteko espezializatutako informazio-teknologiak dira. Horregatik, giza hizkuntzaren teknologia izenpean ere ezagutzen dira maiz teknologia hauek. Giza hizkuntza ahoz nahiz idatziz agertzen da. Hizkuntza-komunikazioko modurik zaharrena eta naturalena hizketa bada ere, informazio konplexua eta giza ezagutzaren zati handiena testu idatzien bidez gorde eta transmititzen da. Hizketa- eta testu-teknologiek bi modu horietan prozesatzen edo sortzen dute hizkuntza. Baina, hizkuntzak baditu hizketan nahiz testuetan agertzen diren alderdiak ere, hala nola hiztegiak, gramatikaren zati handi bat eta esaldien esanahia. Hortaz, hizkuntza-teknologiako atal asko ezin dira bietako batean sartu, hizketa-teknologian ala testu-teknologian. Horien artean daude hizkuntza ezagutzarekin lotzen duten teknologiak. 1. irudiak hizkuntza-teknologiaren egoera irudikatzen du. Elkarrekin komunikatzen garenean, beste komunikazio-modu batzuk eta beste informazio-bide batzuk erabiltzen ditugu hizkuntzarekin batera. Hizketarekin batera, imintzioak eta aurpegierak erabiltzen ditugu. Testu digitalak irudiekin eta hotsekin lagunduta joan ohi dira. Filmetan, hizkuntza ahoz eta idatziz ager daiteke. Beraz, hizketa- eta testu-teknologiak gainjarri egiten dira eta interakzioan daude askotariko komunikazioa eta multimedia dokumentuak errazago prozesatzeko aukera ematen duten beste teknologia askorekin.

4.1 HIZKUNTZA-TEKNOLOGIA APLIKATZEKO ARKITEKTURAK

Hizkuntza prozesatzeko software-aplikazio ohikoenetan, hizkuntzaren hainbat alderdi eta haien zereginak kopiatzen dituzten zenbait osagai egon ohi dira. 2. irudian, testuak prozesatzeko sistema batean topa dezakegun arkitektura bat ageri da, asko sinplifikatuta. Lehenengo hiru moduluek sarrerako testuaren egitura eta esanahia hartzen dute kontuan:

- Aurretratamendua: datuak garbitu, formatua kendu, sarrerako hizkuntza detektatu eta abar.
- Analisi gramatikala: aditza eta haren objektuak, modifikatzaileak eta abar aurkitu; esaldiaren egitura detektatu.
- Analisi semantikoa: desanbiguazioa ("hori" hitzaren zein adiera da egokia testuinguru jakin batean?), anaforak eta erreferentziako adierazpenak (adib. "bera" edo "autoa") ulertzea; esaldi baten esanahia ordenagailuak irakurtzeko moduan eman.

Zeregin espezifikoko moduluek era askotako eragiketak egiten dituzte, hala nola sarrerako testu baten laburpen automatikoa, datu-baseko bilaketak eta beste hainbat. Hemen behean, aplikazio-eremu komunak erakutsiko ditugu, eta eremu horietako modulu nagusiak nabarmendu. Hor ere, aplikazioen arkitekturak oso sinplifikatuta eta idealizatuta ageri dira, hizkuntza-teknologiako (HT) aplikazioak edonork ulertzeko mo-



1: Hizkuntza-teknologien ingurua

duan azaltzearren. Tresna eta baliabide garrantzitsuenak azpimarratuta daude testuan, eta kapitulu amaierako taulan ere ageri dira. Aplikazio-eremu komunei buruzko ataletan, dagokion euskarazko esparruan lanean ari diren industrien ikuspegi orokor bat ere ematen da.

Aplikazio-eremu komunak aurkeztu ondoren, HTen ikerketa eta hezkuntzako egoeraren azalpen labur bat emango dugu, eta, bukatzeko, egin diren eta egiten ari diren ikerketa-programen berri emango dugu. Atal honen amaieran, adituaren ikuspuntutik HTen tresna eta baliabide komunen egoera nolakoa den azalduko dugu, hainbat alderditatik (eskuragarritasuna, heldutasuna eta kalitatea). Taula honek ikuspegi orokor on bat ematen du euskararako HTen egoeraren gainean.

4.2 APLIKAZIO-EREMU KOMUNAK

Atal honetan, HTen tresna eta baliabide garrantzitsuenak aztertu, eta euskarazko HTen jardueren ikuspegi bat emango dugu. Tresna eta baliabide garrantzitsuenak nabarmenduta daude testuan, eta kapitulu amaierako taulan ere ageri dira.

4.2.1 Hizkuntza-zuzentzailea

Testu-prozesadore bat erabili duen edonork egin du topo ortografia-zuzentzaile batekin – ortografia-akatsak markatu eta zuzenketak proposatzen dituen osagaia da. Ralph Gorin-ek ortografia zuzentzeko lehen programa asmatu zuenetik berrogei urte igaro ondoren, gaur egungo hizkuntza-zuzentzaileek ez dute, besterik



2: Testua prozesatzeko aplikazioen ohiko arkitektura

gabe, erauzitako hitzen zerrenda bat ortografia zuzeneko hitzen hiztegi batekin alderatzen; gero eta sofistikatuagoak dira.

Morfologiarako hizkuntzaren menpeko algoritmoez gainera (adibidez, plurala egiteko), batzuk gai dira orain sintaxiarekin lotutako akatsak identifikatzeko, hala nola aditz baten falta edo pertsona edo numeroan subjektuarekin komunztatzen ez duen aditza ("Haiek gutuna idazten ari **da*"). Alabaina, eskura dauden ortografia-zuzentzaile gehienek (Microsoft Word-ekoa barne) ez dute akatsik aurkituko Jerrold H. Zar-en poema bateko (1992) lehen bertso honetan [24]:

> I have a spelling checker,
> It came with my PC.
> It plane lee marks four my revue
> Miss steaks aye can knot sea.

Mota horretako akatsak aurkitzeko, testuingurua aztertu beharra dago maiz, hala nola euskaraz ergatiboa erabili behar den ala ez erabakitzeko orduan:

- *Liburua neskak dauka*
- *Irakurlea neska da.*

Hizkuntza zuzentzailea lortzeko (3), bietakoren bat egin behar da: hizkuntza espezifikoko **gramatika**-arauak formulatu – trebetasun eta eskulan handia eskatzen du horrek – edo hizkuntza-eredu estatistiko delakoa erabili. Ereduok hitz jakin bat inguru zehatz batean (hots, aurretik eta atzetik dituen hitzak) ateratzeko zer probabilitate dagoen kalkulatzen dute. Adibidez, *neskak dauka* hitz-sekuentzia agertzeko probabilitatea neska dauka agertzekoa baino askoz handiagoa da. Hizkuntza eredu estatistikoa automatikoki atera daiteke hizkuntza-datu zuzenen kantitate handietatik (hots, corpusetatik). Orain arte, ingelesezko hizkuntza-datuetan oinarrituta garatu eta ebaluatu dira metodo horiek. Horrek ez du esan nahi, ordea, euskarara zuzenean transferitu daitezkeenik, euskarak inflexio handiagoa eta morfologia eranskaria du eta. Egia esanda, zailtasun izugarriak daude euskararako hizkuntza-ereduak sortzeko, ezinezkoa baita balizko hitz-forma guztiak biltzea.

Hizkuntza-zuzentzailea ez da testu-prozesamenduko tresnetan bakarrik erabiltzen; testuak sortzen laguntzeko sistemetan ere erabiltzen da. Produktu teknikoek gora egin duten bezalaxe, dokumentazio teknikoa ere asko ugaritu da azken hamarkadetan. Enpresak, bezeroen aldetik erabilera txarragatiko kexak edo matxuragatiko erreklamazioak (gaizki idatziriko edo ulerturiko jarraibideengatik) jasotzeko beldurrez, dokumentazio teknikoan arreta gehiago jartzen hasi dira, eta nazioarteko merkatuan sartzen ere bai. Hizkuntza naturalaren prozesamenduan egin diren aurrerapenek testuak sortzen laguntzeko softwarea ekarri dute; programa horrek dokumentazio teknikoa jartzen du idazlearen eskura, arau jakin batzuk eta (enpresaren) terminologia-murrizketa batzuk dituzten hitzak eta esaldi-egiturak erabil ditzan.

Hizkuntza-zuzentzailea ez da testu-prozesamenduko tresnetan bakarrik erabiltzen; testuak sortzen laguntzeko sistemetan ere erabiltzen da.

Euskararako gehien erabiltzen den zuzentzaile ortografikoa Xuxen da [25], IXA unibertsitateko ikerkuntza-taldeak (http://ixa.si.ehu.es) garatu eta Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak eskaintzen duena. Zuzentzaile ortografiko hori ez da hiztegi bat erabiltzera mugatzen, ingelesean edo inflexio txikiagoko beste hizkuntza batzuetan egin ohi den moduan. Horren ordez, analisi morfologikoa egiten du. Zuzentzaile ortografiko honen bertsio berrienak gramatika eta estiloa ere zuzentzen ditu. Bertsio horretan, Hizkia [26] enpresak eta UZEI [27] erakundeak garatutako kodea ere badago.

Zuzentzaile ortografikoetan eta editatzen laguntzeko programetan ez ezik, ordenagailuz lagundutako



3: Hizkuntza azterketa (behean: arauetan oinarritua; goian: estatistikoa)

hizkuntza-ikaskuntzaren esparruan ere garrantzitsua da hizkuntza-zuzentzailea, eta web bilatzaileetara bidalitako dudak automatikoki zuzentzeko ere erabiltzen da; adib. Google-ren "esan nahi zenuen" iradokizunak.

4.2.2 Web bilaketak

Webeko, intranetetako edo liburutegi digitaletako, bilaketak dira gaur egun gehien erabiltzen den hizkuntza-teknologia, eta, hala ere, gutxi garatuta dago. Google bilatzailea 1998an sortu zen, eta mundu osoko bilaketa guztietatik % 80tan erabiltzen da gaur egun [28].
Lehenengo bertsio hartatik ez da aldaketa esanguratsurik egon, ez bilaketaren interfazean, ez berreskuratutako emaitzen aurkezpenean. Oraingo bertsioan, Google-k gaizki idatzitako hitzak ortografikoki zuzentzen ditu, eta, 2009an, oinarrizko bilaketa semantikorako ahalmenak gehitu zizkioten bere algoritmo-taldekatzeari [29]; hala, bilaketa zehatzagoa egin daiteke, sartutako terminoen esanahia testuinguruan aztertzen da eta. Google-ren arrakastak erakusten du, eskura datu asko eta horiek indexatzeko teknika eraginkorrak izanda, nagusiki estatistiketan oinarritzen den metodo batek emaitza onak eman ditzakeela.
Informazio-eskaera sofistikatuagoetarako, ezagutza linguistiko sakonagoa integratu beharra dago testu-interpretazioa errazteko. Makinek irakurtzeko moduko thesaurusak eta hizkuntza-baliabide ontologikoak -adibidez, Wordnet- eta antzeko **Baliabide lexikalak** erabili dituzten esperimentuek hobekuntzak izan dituzte orriak bilaketa-terminoen sinonimoen bidez bilatzeko aukerari esker. Aurrerapen horietarako ere hizkuntzaren baliabide espezifikoak behar dira. Euskal Herriko Unibertsitateko IXA ikerkuntza-taldeak EuskalWordNet (BasWN) garatu du, eta ELRAren bitartez eskuratu daiteke.

Bilatzaileen hurrengo belaunaldiak hizkuntza-teknologia sofistikatuagoa izan beharko du, batez ere galdera batean edo hitz-gakoz osatzen ez den esaldi batean oinarritutako kontsulta bati aurre egiteko. Esaterako, *Emadazu azken bost urteotan beste enpresa batek xurgatu dituen enpresa guztien zerrenda* kontsultarako, **analisi gramatikala** nahiz **analisi semantikoa** behar da. Erantzun egokia lortzeko, analisi sintaktikoa egin beharra dago, esaldiaren egitura gramatikala aztertzeko eta jakiteko erabiltzaileak bilatzen duena xurgatuak izan diren enpresak direla, eta ez beste enpresa batzuk xurgatu dituzten enpresak.

Azkenik, kontsulta prozesatua egituratu gabeko datu-kantitate handi batekin lotu beharra dago, erabiltzaileak lortu nahi duen informazioa aurkitze aldera. Informazio-berreskurapena esaten zaio horri, eta dokumentu egokiak bilatu eta mailakatzen ditu. Gainera, enpresa-zerrenda bat sortzeko, dokumentu bateko hitz kate bat enpresa-izen bat dela adierazten digun informazioa erauzi behar dugu. Era horretako informazioa entitateen izenen ezagutzaile izenekoen bitartez dago eskuragarri.



4: Web bilaketaren arkitektura

Are zailagoa da bilaketa bat beste hizkuntza batean idatzitako dokumentuekin lotzea. Hizkuntzarteko informazio-berreskuratzerako, balizko iturburu-hizkuntza guztietara itzuli behar dugu kontsulta automatikoki, eta berreskuratutako informazioa helburuko hizkuntzara eraman. Testu-formatuez bestelakoetan ematen diren datuen proportzioa handitu den heinean, gero eta gehiago eskatzen dira multimedia-informazioa berreskurapenerako zerbitzuak, hots, irudi-, audio- eta bideo-datuen bilaketak. Audio- eta bideo-fitxategietarako, **hizketa ezagutzeko** modulua izan behar da, hizketaren edukia testu edo irudikapen fonetiko bihurtzeko, eta, hala, erabiltzailearen kontsultak haiekin lotzeko.

Enpresa horien garapena interes bereziko atariei gehigarriak eta bilatzaile aurreratuak eskaintzean datza, gaiari dagokion semantika erabiliz. Oraindik ere prozesatze-indar handia eskatzen duela eta, bilatzaile horiek **testu-corpus** nahiko txikietan bakarrik erabil daitezke. Prozesatze-denbora bilatzaile estatistiko arrunt batena baino mila aldiz handiagoa da, gutxienez – adibidez, Google-k eskaintzen duen bilatzailearekin alderatuta. Bilatzaile horiek eskari handia dute gai espezifikoko domeinuen modelazioan, eta ezinezkoa da mekanismo horiek web-mailan erabiltzea.

> Bilatzaileen hurrengo belaunaldiak hizkuntza-teknologia sofistikatuagoa izan beharko du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresa txikia buru-belarri aritu da lanean, euskararako aplikazioak eta webean oinarritutako zerbitzuak garatzen. HTren ikerketa-emaitzak eta baliabideak integratzen dituzte normalean, hala nola IXA taldearen eta Elhuyar Fundazioaren lematizatzaileak eta datu-base lexikalak. Elebila bilatzaile eleaniztunak kontuan hartzen ditu euskararen berezitasunak, eta hainbat hizkuntza-tresna eta -baliabide integratzen ditu, kalitatezko euskarazko emaitzak lortzeko. Beste adibide bat Miatu izeneko tresna da; liburutegi bat da, eta helburu bereziarekin indexatutako datu baseen gainean le-

matizatzaileak eta analisi morfologikorako beste tresna batzuk erabiliz bilaketak egiteko funtzioak eskaintzen ditu. www.zientzia.net zientziarekin lotutako ataria eta www.ikasbil.net eduki pedagogikoko ataria sortzeko erabili da.

4.2.3 Ahozko interakzioa

Erabiltzaile bati grafikoak, teklatua eta saguaren partez ahozko hizkera erabiliz makinekin interakzioan jartzeko aukera ematen dioten interfazeen oinarrian dagoen teknologia da Ahozko Interakzioa. Gaur egun, enpresek beren bezeroei, langileei edo lankideei telefonoz eskaintzen dizkieten automatizazio partzial edo osoko zerbitzuetan erabiltzen dira, normalean, ahotsaren bidezko erabiltzaile-interfazeak (AEI). Lan-arlo hauetan asko erabiltzen dira ahotsaren bidezko erabiltzaile-interfazeak: banketxeak, logistika, garraio publikoa eta telekomunikazioak. Ahozko interakzioaren teknologia gailu jakin batzuen interfazeetan ere egon ohi da – esaterako, autoan txertatuta doazen nabigazio-sistemetan –, eta erabiltzaile-interfaze grafikoen sarrera/irteera modalitateen ordez ahozko hizkera ezartzeko ere erabiltzen dira, Smartphone gailuetan esaterako.

Ahozko interakzioaren oinarrian, lau teknologia hauek daude:

- **Hizketaren ezagutza** automatikoak: zer hitz esan diren ateratzen du, erabiltzaileak egindako hots-sekuentzia batetik.
- Analisi sintaktikoak eta interpretazio semantikoak: erabiltzaile batek esandakoaren egitura sintaktikoa aztertzen du eta interpretatu egiten du sistemaren helburuaren arabera.
- Elkarrizketa-kudeaketa: beharrezkoa da erabiltzailearen interakzioko sistema-zatian zer egin zehazteko, behin erabiltzailearen inputa emandakoan eta sistemaren funtzioak kontuan hartuta.
- **Hizketaren sintesirako** teknologia (TTS edo Text-to-Speech): esandako hitz horiek hots bihurtzeko eta erabiltzailearentzako irteera gisa emateko erabiltzen da.

> Erabiltzaile bati ahozko hizkera erabiliz makinekin interakzioan jartzeko aukera ematen dioten interfazeen oinarrian dagoen teknologia da Ahozko Interakzioa.

ASR sistemen erronkarik handienetarikoa da zehaztasun osoz ezagutzea erabiltzaile batek esandako hitzak. Horretarako, bietakoren bat egin behar da: erabiltzailearen balizko esaldiak gako-hitzen sorta mugatu batera murriztu, edo hizkuntza-ereduak sortu eskuz, hizkuntza naturalaren erabiltzailearen esaldi sorta handia hartzen dutenak. Ikasketa automatikoko sistemak erabiliz, automatikoki ere sor daitezke hizkuntza-ereduak **hizketa-corpusetatik**; alegia, hizketa duten audio-fitxategien eta haien testu-transkripzioen bilduma handietatik. Esaldien edukia mugatuz gero, ahots bidezko interfazeak era mugatuan erabiltzera behartzen da erabiltzailea, eta horrek eragina izan dezake haren erosotasunean; hala ere, hizkuntza-eredu aberatsak sortu, doitu eta zaintzeak asko igo ditzake gastuak. Hizkuntza-ereduak erabiltzen dituzten eta hasieran erabiltzaile bati zer nahi duen adierazteko malgutasuna ematen dioten –*Nola lagundu diezazuket?* edo antzeko galderen bidez– ahots bidezko erabiltzaile-interfazeek onarpen zabalagoa dute.

Ahots bidezko erabiltzaile-interfazeen emaitzetarako, enpresek erabiltzen dituzten esaldiak aldez aurretik grabatutakoak izan ohi dira eta hiztun profesionalek esandakoak – ahal izanez gero, enpresakoak bertakoak. Esaldi estatikoak diren kasuan, hitzen formulazioa erabilera-testuinguru jakin baten edo erabiltzaile horren datu pertsonalen menpekoa ez denean, erabiltzailearen esperientzia ona izango da. Aldiz, esaldi batek zenbat eta eduki dinamikoagoa hartu behar duen kontuan, are txarragoa izango da erabiltzailearen esperientzia, audio-fitxategi solteak elkarrekin lotzeagatik sortutako prosodia kaskarragoa izango baita. Gaur egungo



5: Ahots bidezko elkarrizketa sinple baten arkitektura

TTS sistemak, ostera, hobeak dira esaldi dinamikoen naturaltasun prosodikoari dagokionez, nahiz eta oraindik ere hobetu daitezkeen.

Ahozko interakzioaren teknologiaren merkatuan, azken hamarkadan, teknologia-osagaien arteko interfazeak asko estandarizatu ziren, eta aplikazio jakin baterako software-tresna jakin batzuk sortzeko irizpideak ere agertu ziren. Era berean, merkatua asko indartu da azken hamar urteotan, batez ere hizketaren ezagutza automatikoaren eta TTSen esparruetan. Esparru horietan, G20 herrialdeetako – populazio dezentea eta indar ekonomiko handia duten herrialdeak – merkatu nazionalak mundu osoko bost enpresa baino gutxiagoren eskuetan daude; Europan, Nuance eta Loquendo dira garrantzitsuenak. 2007. urtetik, Eusko Jaurlaritzak emandako babesari esker, Nuanceren produktu-katalogoan sartuta dago euskara. Alabaina, hizketaren ezagutza automatikoaren eskaintza tamaina txiki eta ertaineko hiztegi-aplikazioetara mugatzen da, eta ez da eskaintzen diktaketa-produkturik. TTSrako, emakumezko ahots bakarra eskaintzen da. Espainiako merkatuan, Verbio Speech Technologies [30] enpresa kataluniarrak bietarako eskaintzen du euskara, hizketaren ezagutza automatikorako nahiz TTSrako. Euskararako diktaketa-sistema komertzialik ez dago, ordea.

Elkarrizketa-kudeaketako teknologia eta ezagutzei dagokienez, enpresa nazionalak dira nagusi merkatuetan, ETEak normalean. TTSen Espainiako merkatuan, enpresa gehienak aplikazio sortzaileak dira. Espainiako merkatuko enpresa nagusiak hauek dira: Indsys [31] (Intelligent Dialogue Systems), Fonetic [32], Ydilo [33] eta NaturalVox [34]. Horietako zenbaitek badute eskaintza mugatu bat euskararentzat. Euskararako doaneko TTS softwarea ere badago, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Aholab [35] ikerkuntza-taldeak eskainia.

Gaur egungo teknologiatik harago begiratuta, aldaketa esanguratsuak egongo dira, Smartphone gailuak hedatu egingo baitira bezeroekiko harremanak kudeatzeko plataforma berri moduan – telefono, Internet eta posta elektronikoarekin batera. Joera horrek eragina izango du ahozko interakziorako teknologiaren erabileran ere. Alde batetik, epe luzera, behera egingo du telefonian oinarritutako ahotsaren bidezko erabiltzaile-interfazeen eskariak. Bestetik, gero eta gehiago erabiliko da ahozko hizkera Smartphonetarako sarrera-modalitate erabilerraz moduan. Joera hori erakusten dute hiztuna kontuan hartu gabeko hizketaren ezagutzaren zehaztasunean egin diren hobekuntza nabariek – Smartphone-erabiltzaileei zerbitzu zentralizatu moduan jada eskaintzen ari zaizkien ahozko diktaketa-zerbitzuetarako egindakoak. Ezagutzaren eginkizuna aplikazioen azpiegitura bideratzeko joera hori ikusita, uste da hizkuntza-teknologia komunen aplikazio espezifikoko erabilerak garrantzia hartuko duela.

4.2.4 Itzulpen automatikoa

Hizkuntza naturala itzultzeko ordenagailu digitalak erabiltzearen ideia A. D. Booth-ek izan zuen 1946an, eta esparru hori ikertzeko finantzaketa handia egin zen 1950eko hamarkadan, eta, berriro, 1980eko hamarkadan. Hala ere, **itzulpen automatikoak** (IA) ez dio oraindik behar bezala erantzun hasierako urteetan sortu zuen itxaropenari.

> Itzulpen Automatikoak, bere oinarrizko mailan, hizkuntza natural bateko hitzak kendu eta beste batekoak jarri besterik ez du egiten.

IAk, bere oinarrizko mailan, hizkuntza natural bateko hitzak kendu eta beste batekoak jarri besterik ez du egiten. Hori baliagarria izan daiteke esapide gutxiko hizkera oso mugatua darabilten esparruetan, hala nola eguraldi-iragarpenetan. Estandarizazio gutxiagoko testuak ondo itzultzeko, ordea, testu-unitate handiagoak (esapideak, esaldiak eta pasarte osoak ere bai) xedehizkuntzako baliokide aproposenekin lotu behar dira. Horko zailtasunik handiena giza hizkuntzaren anbiguotasuna da, erronkak ezartzen baititu hainbat mailatan; esaterako, adiera desanbiguazioa lexiko-mailan ("Jaguar" hitzak autoari edo animaliari egin diezaioke erreferentzia) edo beste maila batzuetan, adibidez:

- *Egon garenetan ez dugu topatu*
  [Egon garen aldietan ez dugu topatu] edo
  [Egon garen tokietan ez dugu topatu]
- *Aitak semeari bere bizikleta eman dio*
  [Aitarena ala semearena?]

Halakoak konpontzeko modu bat hizkuntza-arauetan oinarritzen da. Familia bereko hizkuntzekin ari bagara lanean, beharbada zuzeneko itzulpena egin daiteke bigarren adibidearen gisako perpausetan. Baina, sarritan, arauan oinarritutako sistemek (edo ezagutzak gidaturikoek) sarrera-testua aztertu eta tarteko adierazpide sinboliko bat sortzen dute, eta hortik sortzen da xedehizkuntzako testua. Metodo horiek arrakasta izan dezaten, hiztegi handiak izan behar dituzte, informazio morfologiko, sintaktiko eta semantikoa biltzen dutenak, eta gramatika-arauen bilduma handia, hizkuntzalari aditu batek tentuz diseinaturikoa.

1980ko hamarkadaren amaieratik hasita, ordenagailua garrantzia hartuz eta merkatuz joan zen heinean, gero eta jakin-min handiagoa pizten zuten IArako eredu estatistikoek. Eredu estatistiko horien parametroak testu elebidunen corpusen analisitik atera dira; hor dugu, esaterako, Europarl **corpus paraleloa**, Europako Legebiltzarraren aktak 11 hizkuntza europarretan ematen dituena. Datu nahikoa izanez gero, IA estatistikoa nahiko baliagarria da atzerriko hizkuntzan idatzitako testu baten gutxi gorabeherako esanahia ateratzeko. Alabaina, ezagutzak gidaturiko sistemekin alderatuta IA estatistikoak (edo datuek gidaturikoak) duen desabantaila da emaitza agramatikalak sortzen dituela maiz. Bestalde, datuek gidaturiko IAk, gramatika idazteko giza ahalegin txikiagoa behar izateaz gainera, badu beste abantaila bat: ezagutzak gidaturiko sistemei ihes egiten dizkieten berezitasunak ondo trata ditzake, esapideak kasurako.

Ezagutzak gidaturiko IAren eta datuek gidaturiko IAren indarguneak eta ahulguneak elkarrekiko osagarriak direnez, bietako metodologiak nahasten dituzten metodo hibridoetara jotzen dute ikerlari guztiek gaur egun. Hori egiteko era bat baino gehiago daude. Batean, bi sistemak erabiltzen dira – ezagutzak gidaturikoa eta datuek gidaturikoa –, eta hautapen-modulu batek erabakitzen du zein den esaldi bakoitzaren irteerako esaldi onena. Esaldi luzeetarako, ordea, ez du topatzen emaitza egokirik. Konponbide hobea da irteera askotako esaldien zatirik onenak elkartzea; hori nahiko zaila izan daiteke, askotariko aukerei dagozkien atalak ez baitira beti agerikoak eta lerrokatu egin behar izaten baitira.

Euskararentzat, IA bereziki zaila da. Euskara hizkuntza eranskaria, morfologia aberatsekoa eta flexio maila han-



6: Itzulpen automatikoa (ezkerrean: estatistikoa, eskuinean: arau bidezkoa)

dikoa izanda, hiztegiaren analisia eta hiztegi-estaldura zailagoa da. Gainera, esaldiko osagaien hurrenkera dela bide, lan nekeza da **corpus paraleloak** kudeatzea.

Matxin transferentzian oinarritutako IA sistema bat da, gaztelaniatik euskararakoa, IXA taldeak Euskal Herriko Unibertsitatean garatutakoa. Irekia da, berrerabilgarria, eta euskarri elkarreragingarria eskaintzen du beste hizkuntza bikoteentzat ere (matxin.sourceforge.org). Kode irekiko beste programa batzuk erabiltzen ditu, hala nola Freeling, eta euskararen morfologia berrerabiltzen du morfologia sorkuntzarako. IXA taldeak Itzulpen Automatiko Estatistikoko sistema bat ere sortu du euskara eta gaztelaniarako, hitzen segmentazioa eta berrordenaketa egiten duena (EUSMT). IA sistema horiek garatzeko, lankidetza estua dago unibertsitateko ikerkuntza-taldearen, Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresa txikiaren eta Elhuyar Fundazioaren artean – azken horrek hizkuntza-baliabide asko jartzen ditu. Eleka enpresak Batua-Bizkaiera bihurtzailea ere atera du. Alacanteko Unibertsitateko Transducens taldeak ere garatu du euskaratik gaztelaniara itzultzeko hasierako sistema bat, Apertium plataforma erabiltzen duena. Google Itzultzaileak alfa bertsio bat eskaintzen du euskararentzat.

Lucy Software enpresak – IAko aplikazioen sortzaile garrantzitsuenetakoa da nazioartean – filial bat dauka Espainian, Lucy Iberica [36], lehen Translendium zena. Eusko Jaurlaritzak enpresa hori hautatu zuen 2008an, gaztelaniatik euskararako itzulpen-sistema bat sortzeko, eta 2011an berriro hautatu zuen lan horrekin jarrai zezan.

Erabiltzailearekiko espezifikoa den terminologia eta lanprozesuen integrazioa behar bezala egokituz gero, oro har, uste da IAren erabilerak produktibitatea asko hobetu dezakeela. Halaber, IA sistemen kalitatea oraindik asko hobetu daitekeela uste da. Hainbat erronka daude oraindik; besteak beste, hizkuntza-baliabideak esparru edo erabiltzaile-talde jakin batera egokitzea eta lehendik dauden prozesuetan integratzea, terminoen datu-baseekin eta itzulpen-memoriekin batera. Gainera, hizkuntza-bikote asko falta dira oraindik.

Ebaluazio-kanpainek IA sistemen kalitatea, metodoak eta hizkuntza pare bakoitzerako sistemaren egoera alderatzeko balio dute. 7. irudia (p. 24) Euromatrix+ proiektuan prestatu zen, eta Europako 23 hizkuntzatatik 22tarako lortutako binakako emaitzak (irlandera ez dago ebaluatua) erakusten ditu. Emaitzak zerrendatzeko, BLEU score bat hartu zen kontuan, non score handiagoak itzulpen hobea adierazten baitu [37]. Giza itzultzaile batek 80 puntu inguru lortuko lituzke. Emaitzarik onenak (berdez eta urdinez) programa koordinatuetan ikerketa-inbertsio garrantzitsuak izan dituzten eta hainbat corpus paralelo dituzten hizkuntzek dituzte (ingelesak, frantsesak, nederlanderak, espainierak eta alemanak, esaterako). Emaitza txarragoak dituzten hizkuntzak gorriz ageri dira. Hizkuntza horien kasuan,

	Xede hizkuntza — Target language																					
	EN	BG	DE	CS	DA	EL	ES	ET	FI	FR	HU	IT	LT	LV	MT	NL	PL	PT	RO	SK	SL	SV
EN	–	40.5	46.8	52.6	50.0	41.0	55.2	34.8	38.6	50.1	37.2	50.4	39.6	43.4	39.8	52.3	49.2	55.0	49.0	44.7	50.7	52.0
BG	61.3	–	38.7	39.4	39.6	34.5	46.9	25.5	26.7	42.4	22.0	43.5	29.3	29.1	25.9	44.9	35.1	45.9	36.8	34.1	34.1	39.9
DE	53.6	26.3	–	35.4	43.1	32.8	47.1	26.7	29.5	39.4	27.6	42.7	27.6	30.3	19.8	50.2	30.2	44.1	30.7	29.4	31.4	41.2
CS	58.4	32.0	42.6	–	43.6	34.6	48.9	30.7	30.5	41.6	27.4	44.3	34.5	35.8	26.3	46.5	39.2	45.7	36.5	43.6	41.3	42.9
DA	57.6	28.7	44.1	35.7	–	34.3	47.5	27.8	31.6	41.3	24.2	43.8	29.7	32.9	21.1	48.5	34.3	45.4	33.9	33.0	36.2	47.2
EL	59.5	32.4	43.1	37.7	44.5	–	54.0	26.5	29.0	48.3	23.7	49.6	29.0	32.6	23.8	48.9	34.2	52.5	37.2	33.1	36.3	43.3
ES	60.0	31.1	42.7	37.5	44.4	39.4	–	25.4	28.5	51.3	24.0	51.7	26.8	30.5	24.6	48.8	33.9	57.3	38.1	31.7	33.9	43.7
ET	52.0	24.6	37.3	35.2	37.8	28.2	40.4	–	37.7	33.4	30.9	37.0	35.0	36.9	20.5	41.3	32.0	37.8	28.0	30.6	32.9	37.3
FI	49.3	23.2	36.0	32.0	37.9	27.2	39.7	34.9	–	29.5	27.2	36.6	30.5	32.5	19.4	40.6	28.8	37.5	26.5	27.3	28.2	37.6
FR	64.0	34.5	45.1	39.5	47.4	42.8	60.9	26.7	30.0	–	25.5	56.1	28.3	31.9	25.3	51.6	35.7	61.0	43.8	33.1	35.6	45.8
HU	48.0	24.7	34.3	30.0	33.0	25.5	34.1	29.6	29.4	30.7	–	33.5	29.6	31.9	18.1	36.1	29.8	34.2	25.7	25.6	28.2	30.5
IT	61.0	32.1	44.3	38.9	45.8	40.6	26.9	25.0	29.7	52.7	24.2	–	29.4	32.6	24.6	50.5	35.2	56.5	39.3	32.5	34.7	44.3
LT	51.8	27.6	33.9	37.0	36.8	26.5	21.1	34.2	32.0	34.4	28.5	36.8	–	40.1	22.2	38.1	31.6	31.6	29.3	31.8	35.3	35.3
LV	54.0	29.1	35.0	37.8	38.5	29.7	8.0	34.2	32.4	35.6	29.3	38.9	38.4	–	23.3	41.5	34.4	39.6	31.0	33.3	37.1	38.0
MT	72.1	32.2	37.2	37.9	38.9	33.7	48.7	26.9	25.8	42.4	22.4	43.7	30.2	33.2	–	44.0	37.1	45.9	38.9	35.8	40.0	41.6
NL	56.9	29.3	46.9	37.0	45.4	35.3	49.7	27.5	29.8	43.4	25.3	44.5	28.6	31.7	22.0	–	32.0	47.7	33.0	30.1	34.6	43.6
PL	60.8	31.5	40.2	44.2	42.1	34.2	46.2	29.2	29.0	40.0	24.5	43.2	33.2	35.6	27.9	44.8	–	44.1	38.2	38.2	39.8	42.1
PT	60.7	31.4	42.9	38.4	42.8	40.2	60.7	26.4	29.2	53.2	23.8	52.8	28.0	31.5	24.8	49.3	34.5	–	39.4	32.1	34.4	43.9
RO	60.8	33.1	38.5	37.8	40.3	35.6	50.4	24.6	26.2	46.5	25.0	44.8	28.4	29.9	28.7	43.0	35.8	48.5	–	31.5	35.1	39.4
SK	60.8	32.6	39.4	48.1	41.0	33.3	46.2	29.8	28.4	39.4	27.4	41.8	33.8	36.7	28.5	44.4	39.0	43.3	35.3	–	42.6	41.8
SL	61.0	33.1	37.9	43.5	42.6	34.0	47.0	31.1	28.8	38.2	25.7	42.3	34.6	37.3	30.0	45.9	38.2	44.1	35.8	38.9	–	42.7
SV	58.5	26.9	41.0	35.6	46.6	33.3	46.6	27.4	30.9	38.9	22.7	42.0	28.2	31.0	23.7	45.6	32.2	44.2	32.7	31.3	33.5	–

7: 22 hizkuntza europar arteko itzulpen automatikoa – Machine translation between 22 EU-languages [38]

edo ez dute behar bezalako garapenik izan, edo oso desberdinak dira egitura aldetik beste hizkuntzekiko (adibidez, hungariera, maltera eta finlandiera).

4.3 BESTE ERABILERA-EREMU BATZUK

Hizkuntza-teknologiako aplikazioak sortzeko, era askotako lanak egin behar dira, eta, batzuetan, lan horiek ez dira agertzen erabiltzailearekiko elkarreraginean, baina zerbitzu-funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte sistemaren "erraietan". Horregatik, ikergai garrantzitsuak dira, eta esparru akademikoko hizkuntzalaritza konputazionalaren barruko banakako diziplinak dira orain.

Galderei erantzutea ikerketa-arlo bizia da orain; corpus etiketatuak egin dira horretarako eta lehiaketa zientifikoak antolatu dira. Ideia da gako-hitzetan oinarritutako bilaketa atzean uztea (bilatzaileak garrantzitsuak izan daitezkeen dokumentuen sorta handi bat ematen du), eta bilaketa zehatza egin ahal izatea (erabiltzaileak galdera zehatz bat egiten du, eta sistemak erantzun bakar bat ematen dio):

> *Galdera: Zer adin zuen Neil Amstrongek ilargira iritsi zenean?*
>
> *Erantzuna: 38.*

Argi dago hori lehen aipatu dugun web-bilaketaren esparru komunarekin dagoela lotuta, baina, galderei erantzutea, gaur egun termino zabala da eta hainbat zalantza sortzen ditu, hala nola "Zer galdera mota ezberdindu behar lirateke eta nola tratatu behar lirateke", "Nola azter eta erka daitezke erantzuna izan dezaketen dokumentuak" (bat ez datozen erantzunak eman ditzakete?) eta "Nola erauz daiteke informazio espezifikoa (erantzuna) testu batetik testuingurua gehiegi baztertu gabe?".

Horrek lotura du informazio-erauzketa (IE) delako lanarekin ere; garrantzi eta eragin handiko alorra izan zen hori 1990eko hamarkadaren hasieran, hizkuntzalaritza konputazionalaren barruan "aldaketa estatistikoa" gertatu zen garaian. IEren xedea da dokumentu mota espezifikoetan informazio espezifikoa aurkitzea; adibidez, egunkarietako pasarteetan kontatzen diren enpresa-xurgatzeetan partaide nagusiak zein diren aurkitzea. Landutako beste alor bat terroristen erasoei buruzko albisteena da; horietan, erasoaren egilea, helburua, ordua, tokia eta ondorioak jasotzen dituen txantiloi batera pasatzea da arazoa. Esparru espezifikoko txantiloiak betetzeko gaitasuna IEren bereizgarri nagusia da, eta, horregatik, "atzeko" teknologiaren beste adibide bat da; ondo zedarritutako ikerketa-eremuak ditu, baina, erabilgarria izan dadin, aplikazio-inguru egoki batean txertatu behar da.

Hizkuntza-teknologiako aplikazioek zerbitzu-funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte software-sistema handiagoen baitan.

Bi "mugako" eremu daude: testu-laburpenak eta **testu-sorkuntza**; batzuetan, aplikazio autonomoak dira, eta, beste batzuetan, azpiko aplikazio laguntzaileak. Testu-laburpenak, agerikoa den moduan, testu luze bat laburtzeko lanari egiten dio erreferentzia, eta MS Word-en barruko funtzio moduan eskaintzen da, esaterako. Batez ere estatistiketan oinarrituta egiten du lan; lehenik, testu bateko hitz "garrantzitsuak" aurkitzen ditu (adibidez, testuan oso maiz eta hizkuntzaren erabilera orokorrean askoz gutxiagotan agertzen diren hitzak), eta, gero, hitz garrantzitsu asko dituzten esaldiak detektatzen ditu. Esaldi horiek dokumentuan markatu edo handik erauzi egiten ditu, eta laburpena egiteko erabiltzen ditu. Zeregin horretan – eta horixe da bere zeregin nagusia –, testu-laburpena eta esaldi-erauzketa gauza bera dira: testua txikiagotu egiten da bere esaldien azpimultzo batera. Testu-laburpenerako tresna komertzial guztiek ideia horixe erabiltzen dute. Zertxobait ikertu den beste metodo bat laburpenean esaldi berriak sartzea da; hots, jatorrizko testuan forma horretan agertu beharrik ez duten esaldiez osaturiko laburpena egitea. Horretarako, testua sakonagotik ulertu behar da, eta, beraz, ez da horren metodo sendoa. Azken batean, testu-sortzaile bat normalean ez da izaten aplikazio autonomo bat, software handiagoko batean txertatutako aplikazioa baizik; adibidez, informazio klinikoaren sistemetan, pazienteen datuak bildu, gorde eta prozesatu egiten dira, eta txostena sortzea da sisteman txertatutako testu-sortzailearen funtzioetako bat.

Euskararako eta, halaber, hizkuntza gehienetarako, testu-teknologia gehienetako ikerketa ez dago ingeleserako bezain garatua.

Ikerkuntza-eremu horiek guztiak ez daude ingeleserako bezainbeste garatuta euskararako. Bada, ingelesean, hainbat eta hainbat lehiaketa ireki egin dira galderei erantzutearen, informazio-erauzketaren eta testu-laburpenen esparruetan, Estatu Batuetako DARPA eta NISTek antolatuta. Horrek aurrerapen handiak ekarri ditu esparruan, baina jomuga ingelesa izan da beti; lehiaketa batzuetan sartu izan dira hainbat hizkuntza, baina euskara ez da inoiz horietako bat izan. Hori dela eta, corpus etiketatu edo baliabide gutxi daude eskuragarri zeregin horietarako. Testu-laburpenetarako sistemak, metodo estatistikoak bakarrik erabiltzen dituztenean, hizkuntzaren mendekoak dira, neurri handi batean, eta, beraz, zenbait ikerketa-prototipo daude eskuragarri. Testu-sorkuntzarako, osagai berrerabilgarriak gainazala egiteko moduluetara ("sorkuntza-gramatiketara") mugatuta egon izan dira; hor ere, eskura dauden software gehienak ingeleserako dira.

4.4 HIZKUNTZA-TEKNOLOGIA HEZKUNTZAN

Hizkuntza-teknologia diziplinarteko alorra da, eta hainbat adituren lana hartzen du; besteak beste, hizkuntzalariak, informatikariak, matematikariak, filosofoak, psikolinguistak eta neurozientzialariak. Hortaz, gaur egun, Espainian, hizkuntzalari konputazional izateko oinarrizko prestakuntza filologia edo hizkuntzalaritzako gradu baten barruan emango da, beharbada – irakasgai komunen artean hizkuntzalaritza konputazionala ematen bada –, edo informatika-fakultatean, bestela. Lehen aukera eskaintzen duten unibertsitateak hauek dira: Universitat de Barcelona, Universitat Pompeu Fabra, Universitat Oberta de Catalunya eta Universidade de Vigo. Hizkuntzalaritza konputazionala irakasgaitzat ematen duten informatika-fakultate nagusiak, berriz, beste hauek dira: Universidad Politécnica de Madrid, Universidad Carlos III, Universidad Autónoma de Madrid, Universitat d'Alacant, Universidad Nacional de Educación a Distancia eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Bi aukerak eskaintzen dituenik ere bada: Universidad Complutense.

Graduondoko ikastaroek helburu zehatzagoa duen prestakuntza profesionala eskaintzen dute. Doktoreikastaro batzuetan ematen dira hizkuntzaren eta hizketaren prozesamenduarekin lotutako masterrak eta irakasgaiak. Euskal Herriko Unibertsitateak hizkuntzaren prozesamenduari buruzko doktoretza-ikastaro oso bat eskaintzen du, euskara hutsean ere ikas daitekeena. Beste master edo doktoretza-ikastaro batzuetako ikasleei ere eskaintzen zaizkie hizkuntza-teknologiako moduluak, hizketaren prozesamendua batik bat (adib. EHUren Sare Mugikorretako Informazio- eta Komunikazio-teknologiak masterreko ikasleei).

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitateetan banatuta dauden zenbait ikerketa-talde ari dira gai hauek lantzen: hizketaren prozesamendua, hizketaren sintesia eta bihurketa, hizketaren eta hiztunaren ezagutza, hizkuntzaren ezagutza, hizkuntza naturalaren prozesamendua, testutik testurako itzulpena eta hizketatik hizketarako itzulpena. Guztiak dira Hizkuntza Naturalaren Prozesamendurako Espainiar Elkarteko kide (SEPLN, Sociedad Española para el Procesamiento del Lenguaje Natural). SEPLN irabazi asmorik gabeko erakundea da, esparru akademikoko nahiz industria-arloko 300 kide baino gehiago dituena, eta 1984an sortu zen, helburu honekin: irakaskuntza, ikerkuntza eta LNPren garpenarekin lotutako jarduerak sustatu eta zabaltzea, Espainian bertan nahiz nazioartean. SEPLN elkarteak mintegiak, sinposioak eta hitzaldiak antolatzen ditu, eta Espainiako nahiz nazioarteko erakundeekiko lankidetza sustatzen du.

SEPLNk urteroko kongresu bat antolatzen du, eta, urtetik urtera, LNP lantzen duten ikerlari gehiago erakartzen ditu, Espainiatik nahiz kanpotik datozenak. Elkarteak aldizkari bat ere kaleratzen du, eta web-zerbitzari bat du, hizkuntza naturalaren prozesamenduarekin lotutako gaiei buruzko informazioa eta kideentzako foro ireki bat eskaintzen dituena.

Espainiako Hizketa Teknologietako Sarea (RTTH) [39] foro komun bat da, eta han elkartzen diren hizketateknologien ikerlariek (25o baino gehiago dira gaur egun) zeregin osagarriak egin eta esperientziak elkarbanatzen dituzte, helburu hauekin:

- Hizketa-teknologien ikerkuntza sustatzea, alor horretara ikerlari gazte gehiago erakartzeko prestakuntza, ikasle-trukeak, bekak eta sariak eskainiz.
- Negozio-ikerkuntzarako inbertsioak erakartzea, beste negozio aukera batzuk eskaintzen dituzten aplikazio berriak aurkituz.
- Aurrerapenak egitea elkarteak sortzen, eta sareko kideak integratzea, Espainiak gaztelaniaren ikerkuntzan duen nagusitasunari eusteko eta hizkuntza koofizialei ere bultzada emateko (katalana, euskara eta galegoa).

RTTH elkarteak "Hizketaren teknologiari buruzko jardunaldiak" antolatzen ditu urtero, 2000. urtetik. Ikastaro horren xedea da elkargune bat izatea, iberiar penintsulako hizkuntzetan dauden hizketa- eta hizkuntza-teknologien gaineko ikerkuntzaren emaitzen berri emateko eta horiei buruzko eztabaida sustatzeko. Enpresen eta unibertsitatearen arteko elkarlana ere sustatzen du. Era askotako jarduerak antolatzen ditu: txosten teknikoen aurkezpenak, hitzaldi magistralak, proiektu-txostenen eta laborategiko jardueren aurkezpenak, erakustaldiak eta azken doktore-tesien aurkezpenak.

4.5 HIZKUNTZA-TEKNOLOGIAKO PROGRAMAK

Euskararako teknologia-programak Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak bultzatu dituzte, batez ere.

Espainiako Hezkuntza Ministerioak eta Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioak ikerketa-programa nazionalen bidez bultzatu dute informazio-teknologien alorreko ikerketa. Programa horietarako, ikerketa-proiektu asko egin behar izan dira, eta elkarlana egin nazioarteko ikerketa zentro eta enpresekin. Euskararen prozesamendu automatikorako aplikazio komertzialen eta aurrerapen teknologikoaren oinarria proiektu horien ondorioz sortu da, hein batean.

2000. urtetik hona, Espainiako Gobernuak, Ikerketarako eta Teknologia Berrikuntzarako Plan Nazionalaren barruan, proiektu batzuk bultzatu ditu hizketa-teknologia eleaniztunen alorrean: TEHAM, AVIVAVOZ eta BUCEADOR. Haien helburu nagusia zen hizketaren ezagutza, hizketaren itzulpena eta testutik hizketarako sintesia hobetzea Espainiako hizkuntza ofizial guztietan: euskara, galegoa, katalana eta gaztelania.

Industria Teknologia Garatzeko Zentroa (CDTI) Espainiako erakunde publiko bat da, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mendekoa, eta Espainiako enpresen maila teknologikoa areagotzen laguntzea du helburu. CDTIk I+G proiektuak ebaluatu eta finantzatzen ditu, CENIT (2010ean bukatutakoa) eta AVANZA bezalako programen bitartez.

Eusko Jaurlaritzak ikerketa eta berrikuntzaren alde egiten du "Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako plana" ren bitartez (ZTBP). Plan horren barruan, erakunde eta ikerketa- eta berrikuntza-agentzia batzuk eratu dira azken urteotan: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua (ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko eta garatzeko ekintzak egiten dituen erakunde politiko ahaltsuena), InnoBasque (berrikuntzaren euskal agentzia) eta IkerBasque (zientziaren euskal fundazioa, talentudun ikerlariak euskal zientzia- eta teknologia-sistemara erakartzeaz arduratzen dena). ZTBP planaren tresna garrantzitsuenak ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako deialdiak dira: ETORTEK programa – Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko erakundeei zuzendutakoa – eta ETORGAI programa – enpresa pribatuei zuzendutakoa.

